



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

2023ko

JARDUEREN

MEMORIA





Lehenengo Alares Saria. 2023

AURKEZPENA

Memoria honen helburua da instituzioei, erakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2023. urtean egindako jardueren berri ematea.

Lehenengo apartatuan, Emakundek zer egiteko eta zer ikuspegi duen jaso da, bai eta funtzioak betetzeko zer baliabide tekniko eta kudeaketa-baliabide dituen ere. Hurrengo apartatueta, Emakundek jarduketaremuetan hedatzen dituen lan-ildoak eta programak deskribatu dira: berdintasun-politika publikoen diseinua, sustapena, koordinazioa, aholkularitza, jarraipena; emakumeen ahalduntzea eta jendartean duten parte-hartzea bultzatzea; jendartea sentsibilizatzea, publiko espezifikoei zuzendutako hainbat programa barne; berdintasuna enpresetan; berdintasuna komunikabideetan eta publizitatean; emakumeen kontrako indarkeria matxista; berdintasunerako eskubideen aldeko defentsa sektore pribatuan, eta berdintasun-arloko prestakuntza eta azterlanak.

Indarkeriaren biktima diren emakumeei emaniko arretaren koordinazio-lanetan izaniko aurrerapenaren sinboloarekin hasi zen 2023. urtea: urtarrilaren 19an, Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko III. Akordioa sinatu zen. Akordio hori, 2001ean lehen aldiz onetsi eta 2009an eguneratu zenetik, funtsezko koordinazio-tresna izan da, eta sistematizatu egin du emakume biktimei ematen zaien arreta. Hirugarren akordioaren helburu nagusia da biktimen beharrak erdigunean jartzea, eta 2023an aurrerapen garrantzitsuak ekarri ditu, besteak beste, emakume biktimen espedienteen kudeaketa integratuarekin loturiko auzietan. Hain zuzen ere, proiektuaren bigarren fasea bete da aurtan, eta Eusko Jaurlaritzako sailek eskaintzen dituzten zerbitzuen eta prestazioen arteko koordinazioaren hobekuntzak aztertzen eta identifikatzen dira. Era berean, plataforma informatiko bat ere sortu da, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazio guztia bildu ahal izateko.



Horrekin batera, urrats garrantzitsuak egin dira sexu-indarkeriaren biktimei arreta emateko 24 orduko zentroak koordinatzeko akordioaren esparruan, hiru lurraldeetan.

2023a, orobat, urte garrantzitsua izanda emakumeen asoziazionismoarako; izan ere, 25 urte bete ditu Emakunderen Aholku Batzordeak, hau da, erakundearen eta emakumeen elkarten arteko elkarrizketa-organoa. Emakumeen elkarte-mugimenduko ordezkari ugari elkartu ziren azaroaren 13an Gasteizko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioan, eta guztiek elkarrekin jardun zuten aintzatespen-, gogoeta- eta ospakizun-jardunaldi batean. Horrek agerian jarri zuen, inondik ere, berdintasunari egiten dion ekarpen garrantzitsua.

2023an, halaber, Josune Irabien izendatu da Emakundeko idazkari nagusi, eta aintzatesi egin da, orobat, Emakundek ardurakidetzat sozialaren arloan egiten duen lana; izan ere, Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateragarri egiteko 2023ko Lehen Alares Saria irabazi du Emakundek, bai eta erakundearen kategoriako Gizarte Erantzukizunaren Lehen Saria ere, arlo horretan bikaintasunari egindako ekarpenagatik, EAEn esparru horretan dauden baliabide, programa eta zerbitzu publikoak biltzen dituen Berdingune atari tematikoari esker.

Berdintasunerako eta Indarkeriarik Gabeko Bizitzetarako Herri Itunaren esparruan, Emakundek, era berean, «Berdintasuna, Zientzia eta Teknologia paradigma-aldaketa baten alde» nazioarteko kongresua antolatu zuen urriaren 23an Donostiako Miramar Jauregian. Ekitaldi horren bidez, gure herrialdean zientziarekin zerikusia duten eragileen artean berdintasunaren aldeko sinergiak sortzea bultzatu zen. Emakundek eskerrak eman nahi dizkie 2023an Itunarekin bat egin duten pertsona eta entitate guztiei, kontuan izanik horren bidez inplikazioa erakutsi dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren alde.

Eskerrik asko guztioi.

Emakunderen zuzendaria.



Miren Elgarresta. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.



AURKIBIDEA

AURKEZPENA 2

1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA..... 6

- 1.1. Egitekoa, ikuspegia, jarduketa-esparruak eta egitura organikoa 7
- 1.2. Zuzendaritza Kontseilua.....8
- 1.3. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.....9
- 1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana.....9
- 1.5. Kudeaketa aurreraturako plan estrategikoa.....10
- 1.6. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa10
- 1.7. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.....11
- 1.8. Informazioa, gardentasuna eta kontuak ematea11
- 1.9. Harreman estua gizartearekin.....13

2. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK25

- 2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea26
- 2.2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana.....27
- 2.3. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana29
- 2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.....31
- 2.5. Eusko Jaurlaritzako sailekin elkarlanean aritzeko ildoak eta proiektuak.....32
- 2.6. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa34
- 2.7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde arteko Batzordea.....35
- 2.8. Lankidetzako proiektuak EUDELein.....36
- 2.9. Dirulaguntzak, udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateentzat39
- 2.10. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza.....40

3. ESTATU-MAILAKO ELKARLANA ETA NAZIOARTEKOTZEA.....41

- 3.1. Lankidetzako ildoak Estatuko berdintasun-arloko organismoekin42
- 3.2. Europaren proiektuari laguntzea.....43
- 3.3. Nazioarteko lankidetzako44

4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA 46

- 4.1. Emakunderen Aholku Batzordea47
- 4.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntza49
- 4.3. Elkarrekin egindako proiektuak eta lankidetzako ildoak.....49

5. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA51

- 5.1. Berdintasunaren aldeko Herri Ituna.....52
- 5.2. Nahiko programa53
- 5.3. Gizonduz ekimena.....54
- 5.4. Martxoaren 8ko kanpaina.....59
- 5.5. Azaroaren 25eko kanpaina.....60
- 5.6. Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria.....61
- 5.7. Emakunde aldizkaria.....62

6. BERDINTASUNA ENPRESETAN.....63

- 6.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza64
- 6.2. Dirulaguntzak enpresa eta entitate pribatuentzat.....64
- 6.3. Berdintasunerako lankidetzako entitateak aitortzea64
- 6.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena65
- 6.5. BAI SAREA, berdintasunerako lankidetzako entitateen Sarea.....66
- 6.6. Enpresentzako prestakuntza.....67
- 6.7. Funtsezkoak diren eragileekiko lankidetzako ildoak.....68
- 6.8. Beste proiektu batzuk.....68

7. BERDINTASUNA PUBLIZITATEAN ETA KOMUNIKAZIOAN69

- 7.1. Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea70
- 7.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa.....71
- 7.3. Publizitateari eta komunikazioari buruzko azterlanak, ikerketak eta monitorizazioak72



8. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA73

8.1. Beldur Barik programa	74
8.2. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten antolakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak	76
8.3. Lankidetzazko sozialerako ildoak eta proiektua.....	76
8.4. JABETUZ programa.....	79
8.5. Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak.....	81
8.6. EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioaren Jarraipen Batzordea.....	82
8.7. Baliabideen kudeaketa integratua.....	85
8.8. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak	86
8.9. Adineko emakumeak	86
8.10. Emakumeen mutilazio genitala	86
8.11. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa.....	88
8.12. Erakunde arteko lankidetzazko ildoak eta -proiektuak.....	89

9. BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA SEKTORE PRIBATUAN.....89

9.1. Aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza.....	90
9.2. Aholkularitza-kontsultak.....	90
9.3. Ikerketa-prozedurak.....	90
9.4. Irizpenak ematea.....	91

10. PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN92

10.1. Emakunderen online prestakuntza-ataria.....	93
10.2. «Berdintasuna, Zientzia eta Teknologia, paradigma aldaketa baten alde» nazioarteko kongresua.....	93
10.3. UPV/EHUko udako ikastaroa.....	94
10.4. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak	95
10.5. Lankidetzazko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin.....	95
10.6. Lankidetzazko ildoak unibertsitateekin.....	95

11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK97


11.1. Txostenak eta azterlanak.....	98
11.2. Ikerlanetarako bekak	98
11.3. Argitalpenen lehiaketa.....	100
11.4. Dokumentazio Zentroa.....	100

12. ERANSKINAK103

1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko dirulaguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.....	104
2. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.....	107
3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatze laguntza kontratatze dirulaguntza jaso duten enpresen eta entitateen zerrenda.....	114
4. ERANSKINA: BAI SAREKO lankidetzazko entitateen zerrenda.....	116
5. ERANSKINA: Antolakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda, diruz lagundutako emakumeen kontrako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko.....	118

13. ARGAZKIAK..... 121





1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA



Emakunde Eusko Jaurlaritzaren organismo autonomo bat da, nortasun juridiko propioa duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea du helburu. Bere funtzioak betetzeko, Emakundek langile eta aurrekontu propioak ditu, baita kudeaketa-sistema aurreratu eta garden bat ere.

1.1. Egitekoa, ikuspegia, jarduketa-esparruak eta egitura organikoa

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea izaera administratiboa duen organismo autonomo bat da, nortasun juridikoa eta aurrekontu propioa dituena. Otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortu zen, eta 2020tik Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita dago¹. 2023an, Miren Elgarresta Larrabide² izan da Emakunderen zuzendaria eta ordezkaria, eta Zuriñe Elordi Romero³ eta Miren Josune Irabien Marigorta izan dira, bestalde, idazkari nagusiak.

Egitekoa	Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizarte sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko —benetakoa eta eraginkorra—, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturegintzaren eta gizartearen esparru guztietan.
Ikuspegia	Emakundek erreferentzia-eredu izan nahi du berdintasunerako politikak sustatzen, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta bai kanpoan, helburuen betetze-maila handia eta harekin lankidetzan diharduten herritar, pertsona eta entitateek, eta bere langileek, egiten dioten balorazio ona direla eta.
Jarduketa-esparruak	<ul style="list-style-type: none"> - Administrazio publikoak. - Enpresak eta antolakundeak. - Emakumeen elkarteak. - Komunikabideak eta publizitatea. - Herritarrak.

1. Irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak arautua.
 2. Urriaren 4ko 117/2022 Dekretuak izendatua.
 3. Ekainaren 27ko 184/2017 Dekretuak izendatua.
 4. Ekainaren 20ko 93/2023 Dekretuak izendatua.

Egitura organikoa

Zuzendaritza-organoak:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Emakunderen zuzendaria.
- Emakunderen idazkari nagusia.

Kudeaketa-organoak:

Funtzio-arloak:

- Prentsa eta komunikazioa.
- Administrazioa.
- Aholkularitza juridikoa eta informazioa.
- Lankidetzatza instituzionala.
- Emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea.
- Programak eta prestakuntza.
- Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.
- Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzea.

Koordinazio-organoak:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea.
- «EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundearen arteko III. Akordioaren» Jarraipen Batzordea.
- Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.



1.2. Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaritza Kontseilua⁵ da Emakunderen zuzendaritza-organo nagusia, eta honako kide hauek ditu: kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria; lehen kontseiluburuordea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua; bigarren kontseiluburuordea, Emakundeko zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte-gaiak; foru-eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria.

2023ko azaroaren 7an, ohiko bilkura bat egin du Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak. Bilkura horren helburu nagusia izan zen dokumentu hauek onartzea (araudiak eskatzen baititu):

- EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2022.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena - 2021.
- Emakunderen 2022ko jarduketaren memoria.

Bilkuran, halaber, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren atariko dokumentua kontrastatu zen Kontseiluarekin.



Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua.



1.3. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak

Emakunden, 38 langile aritu dira 2022an: 31 emakume eta 7 gizon. Teknikariek osatutako taldea da denetan ugariena, eta, bereziki, berdintasun-arloko adituena.

Zuzendaria Idazkaritza Nagusia	<ul style="list-style-type: none"> • 1 Prentsa aholkulari • 7 Arlo-arduradun 	<ul style="list-style-type: none"> • 12 Berdintasun-teknikari • 3 Aholkulari juridiko • 1 Artxibo-teknikari • 1 Azterlan-teknikari • 1 Administrazio-Kudeaketako teknikari 	<ul style="list-style-type: none"> • 2 Goi-kargudunen idazkari • 1 Administrari • 1 Administrari informatiko • 5 Laguntzaile orokor • 1 Mandatari gidari
-----------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Emakundek 7.886.000 euroko aurrekontua izan zuen 2023an bere programak eta ekintzak gauzatzeko⁶. Aurreikusitako aurrekontu-partiden arabera erabili zen aurrekontua, eta betetze-maila % 97,68koa izan zen.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legeak arautua.

1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana Emakunderen ekintza-plana da, eta bertan zehazten da 2022-2024 aldirako lan-estrategia, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren eta XII. legegintzaldirako Gobernu Programaren esparruan.

Urteko jarduketak planifikatu eta ebaluatuz garatzen da plana. 2023rako ekintza-plana 25 helbururen inguruan egituratzen da, eta guztira 136 jarduketa biltzen ditu, Gobernu Onean aurrera egiteko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko, ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista ezabatzeko. Honako hauek dira, zentralak eta lehentasunezkoak direnez, Emakunderen lanaren eta baliabideen zati handi bat biltzen duten lehentasunezko 4 helburuak:

1. EAEko berdintasun-politika publikoen buru izatea.
2. Gizarte zibilaren konpromisoa eta protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerantz aurrera egiteko.
3. Genero-arrakalak murriztea ekonomia- eta gizarte-esparruetan.
4. Erakunde arteko koordinazioa indartzea emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurrean.

Planaren ebaluazioak, aurreko urteetan bezala, betetze-maila handia du jardueren garapenari dagokionez.



1.5. Kudeaketa aurreraturako plan estrategikoa

Emakunderen Sendotze eta Hobekuntza Planean (2022-2024) proposatutako funtsezko alderdietako bat da Emakunderen estrategian sakontzea eta hausnartzea, misioa eta ikuspegia definitzea, helburu estrategikoak eta ekintzak planifikatzea, eta kudeaketa-plan koherenteak ezartzea. 2023an, hainbat lan-saio egin dira helburu hori betetzeko.

Bestalde, adierazi behar da Emakunde 2015etik ari dela kudeaketa publiko aurreratuaren arloan lanean. 2023an, planean aurreikusitako eta lehenetsitako jarduerak lantzen jarraitu da, hala nola pertsonetikiko konpromisoa, informazioa eta barne-komunikazioa. Horretarako, Harrera eta Agur Protokoloa kudeatu da, eta langileen iritzia bermatzeko behar diren metodoak bultzatu dira, Zorion-emateen, Iradokizunen eta Kexen Postontziaren bidez. Era berean, aurreko urtean aurreikusitako ekintzen ebaluazioa egin da.

Aurreko urteetan bezala, Q-epea taldean parte hartzen jarraitzen dugu, hau da, kudeaketan bikaintasunarekin konprometitutako EAEko entitateen sarean eta horren barruan egituratzen diren taldeetan. 2023an, Q-epea taldean lan egin da, zeinak jardunaldi bat antolatzen baitu Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen barruan. «*Adimen Artifizialarekin batera*» izan da ekitaldi hori.

1.6. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Emakunderen 2023-2027 Plan Estrategikoaren esparruan, 2023ko urteko kudeaketa-plana egin eta gauzatu da, bai eta 2022koa ebaluatu ere.

Bestalde, 2023ko jarduketekin jarraituz, nabarmentzekoak dira Euskara Batzordeak planaren komunikazioan eta jarraipenean egindako lana, “*Euskunde*” dibulgazio-buletina egitea, langileentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak abiaraztea, eta etorkizuneko ekintzen plangintza diseinatzea. Zehazki, VII. plangintza-aldiarekin loturik eta Plan Estrategiko berriari begira lan egin da 2023an. Hori horrela, VII. plangintza-aldiari dagokion plan berria diseinatu da, Euskararen Normalizaziorako Kudeaketa eta Erabilera Esparru (KEMEN) berriaren arabera. Halaber, hizkuntza-normalizazioko teknikariekin koordinatzeko bileretan parte hartzen jarraitu dugu, baita hizkuntza-politikaren arloan administrazio publikoen arteko Koordinazio Batzordearen (HAKOBA) talde teknikoaren bileretan ere, EAEko administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean euskararen erabilera sustatzeko.

Urtero bezala, “*Euskararen Nazioarteko Egun*” ere ospatu da. Besteak beste, euskaraz ahalduntzeari buruzko gerturatze-lana egin zen saio hartan. Era berean, langile guztien artean zabaldu zen “*Gaitu*” proiektua, zeinaren helburua baita euskarazko ahots-corpus bat sortzea Common Voice proiekturako, eta, hari esker, euskararen erabilera bultzatzea esparru digitalean.



1.7. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Emakunderen zuzendariaren 2022ko azaroaren 2ko Ebazpen bidez onetsitako 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eskatzen duenarekin bat etorriz, haren aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehaztu ziren, baita horiek lortzeko behar den epea, aurreikus litezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak ere.

Plan horrek eraginkortasuna eta efizientzia handitzen direla bermatu nahi du, eta helburu du gardentasuna sendotzea dagokion jardueraren eremuan. Ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da. Izan ere, erakundeak, dirulaguntzak emanez, helburu hauek lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Analisia bost eremutan egituratzen da:

- Emakumeen ahalduntzea sustatzea, asoziazionismoaren bidez, eta haien aintzatespena egitea.
- Antolakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak onartuz.
- Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea, sensibilizaziorako jarrerak zabaltzen dituzten antolakunde eta elkarteei lagunduz.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako azterlanak eta ikerketak sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko jarduketak aintzatestea.

1.8. Informazioa, gardentasuna eta kontuak ematea

INFORMAZIOA: 2023an, Emakunde herritarrei egiten dituen jarduketan inguruko informazio eguneratua ematen jarraitu du, bereziki bere webgunearen eta sare sozialen bidez, baita Irekia atari informatiboaren eta komunikabideen bidez ere.

- **WEBGUNEA:** Emakunderen webgunea berri da, irisgarriagoa izan dadin, eta ingelesezko atala gehitu zaio, Erakundeari buruzko nazioarteko informazio-eskariari erantzuteko. Irudia berrituta, webguneak herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzak eskaintzen jarraitzen du. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, baita sare sozialekin, Irekia atariarekin, blogekin eta abarrekin interakzioan aritzeko ere.
- **IREKIA:** Emakunderi buruzko albisteak eta eguneratzeak agertu dira Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian.
- **SARE SOZIALAK:** Mantendu eta indartu egin da 2023an, nabarmen, Facebook eta Twitter sare sozialen aldeko apustua; Instagramen aldeko apustu handia ere egin da, belaunaldi gazteenengana iriste aldera. 2023an Emakunde kanal bat estreinatu zuen TikTok webgunean. Era berean, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka YouTube.

Jarraitzaile kopurua	2020	2021	2022	2023
Twitter	9.113	9.446	9.723	9.797
Facebook	11.561	12.128	12.992	12.992
Instagram	3.636	4.336	4.966	5.630
Guztira	24.310	25.910	27.681	28.419



- **KOMUNIKABIDEAK:** Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta jardueraz informatzeko, erakundeak sentsibilizazio-etainformazio-lanhandia egitendukomunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidaltzen ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelakoak antolatzen. Era berean, Emakunde da komunikabideen erreferentzia nagusietako bat emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai jorrazteko.

GARDENTASUNA: 2023an, Emakunderen web-orrian gardentasunari buruzko eremua elikatzen eta eguneratzen jarraitu da, non Emakunderen antolaketari eta plangintzari buruzko informazio irisgarria, haren zerbitzu-katalogoa, kontratuen eta dirulaguntzen inguruko jarduerak

eta abar eskaintzen baitira. Modu berean, Eusko Jaurlaritzaren gardentasuneko webgunerako esteka gehitu da.

KONTUAK EMATEA: Emakunde jardueraren betetze-mailaren kontuak ematen ditu Eusko Legebiltzarraren eta beste hainbat erakunde, antolakunde eta gizarte-eragileen aurrean, hainbat bideren bidez. Hilero, Emakunde governu-programa betetzeko egindako jarduketan berri ematen du Irekian. Urtero, jarduketa-memoria bat prestatu, eta webgunean argitaratzen du, beste hainbat arlok egindako memoriekin batera; esaterako, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzeko arloak, Begira-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeak eta Gizonduz ekimenak egindakoak.



Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordea.



Jasangarritasun, Ingurumen eta Ingurune Naturalaren Batzordea.



Eusko Legebiltzarraren aurrean osatzen da kontu-ematea. Bertara bidaltzen dira urtero araudiak eskatzen dituen txostenak eta lehen aipatutako urteko memoriak. Gainera, Emakundeko Zuzendaritzak bi agerraldi egin ditu 2023an Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordean eta Jasangarritasun, Ingurumen eta Natura Ingurunearen Batzordean. Idatziz egindako 7 galderari eta 14 informazio-eskariri erantzun die, eta Haurren eta Nerabeen Legeari buruzko ekarpenak bidali ziren.

1.9. Harreman estua gizartearekin

Emakundek harreman estua izan du 2023an gizarte-eragileekin. Hala, Emakunderen zuzendaria eta idazkari nagusia hainbat erakunde, antolakunde, enpresa eta entitatek antolatutako jardueretan izan dira. Hori horrela, erakundeak berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa indartzen du gizarteko esparru guztietan, eta entzuteko aukera du.

ENTITATEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia	Genero-indarkeriaren biktimentzako informazioa eta ibilbide prozesuala azaltzeko gidaren aurkezpena joatea.
Arartekoa eta UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra.	1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena ospatzeko Bilbon egindako ekitaldira joatea.
Segurtasun Saila	- Jardunaldiaren amaiera: «Emakumea eta Ausazko Jokoak», Bilbon. - Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta Erandion egindako jardunaldian parte hartzea.
Ertzaintza	Emakumea Ertzaintzan sartu zeneko 40. urteurrena ospatzeko Bilbon egindako ekitaldira joatea.
IHOBE	Bilbon eginiko «Klima-aldaketa Euskadin, generoaren ikuspegitik», jardunaldia abiarazteko ekitaldia.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	- BILTZEN - Immigrazioaren eta Kultura arteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuak Donostian antolatutako jardunaldiaren inaugurazioa: «Iruditeria kolektiboak aldatzen: emakume migratuen eta ijitoen enplegarritasuna». - "2023ko René Cassin" saria emateko ekitaldira joatea, Gasteizen. - SATEVI - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko Zerbitzu Espezializatuan antzeman diren tratu txarren motei buruzko datuak aurkezteko Bilbon egin den ekitaldira joatea. - Familia eta Haurren Zuzendaritzak Gasteizen antolatutako «Kontziliazioari bideak irekitzen» kongresura joatea. - 900 840 111 telefonoaren jardueraren balantzeari eta indarkeria matxistaren biktimentzako baliabide eta zerbitzuen gida berriaren aurkezpenari buruzko lan-jardunaldira joatea. - «Zainketen euskal itunerantz aurrera egitea» izenarekin zainketen inguruan Donostian eginiko kongresura joatea. - René Cassin Giza Eskubideen Sarian epaimahaikide gisa parte hartzea.
GOGORA	«Emakumeak Aberriak Eginez, Emakume Abertzale Batzak 100 urte» liburua aurkezteko ekitaldira joatea Bilbon.



ENTITATEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Hezkuntza Saila	Hezkidetzari buruzko jardunaldiaren inaugurazioa: «Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean, gizartearen erronka, eskolaren erronka», Bilbon.
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	- «Imparables-Geldiezinak» proiektuaren aurkezpenean parte hartzea, Bilbon egindako euskal kirolaren historiako emakumezko kirolari garrantzitsuenetako batzuen lana balioesteko. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eta Basque Team Fundazioak antolatuta. - 2023ko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldian bertaratzea. «Batu ditzagun gure ahotsak, eraldatu dezagun etorkizuna», Donostian egina.
EITB	Esklerosi anizkoitza ikertzeko dohaintzak biltzeko EITB Maratoiaren 2023. edizioan parte hartzea, «Geldiezinak gara/Somos imparables» lelopean.
Osakidetza	Osakidetzan indarkeria matxistaren aurkako 16 aktibismo-egunen ekimenaren mahai-inguruan parte hartzea, Bilbon.
Gipuzkoako Foru Aldundia	- «Emakumeen Etxeak. Aukera berriak» jardunaldian parte hartzea Donostian. - Ikastolen sorreraren aitzindari izan zen Elbira Zipitriari buruzko dokumentalaren estreinaldira joatea.
Basauriko Udala	«Behin eta Berriro» ekimenaren aurkezpena; indarkeria matxistari buruzko esperientzia murgiltzailea, gazteei zuzendua.
Bartzelonako Udala	«Polítiques feministes: perspectives i reptes» jardunaldiko mahai-inguruan parte hartzea, praktika instituzionalean genero-transbertsalitateari buruzko ponentzia batekin.
Ayuntamiento de Portugalete	Portugaleten egindako XXII. Berdintasun Jardunaldietara bertaratzea.
EGK - Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	«Harremanak ehuntzen: Discursos de amor y odio» jardunaldiaren inaugurazioa.
Jaizkibel konpainia	- Hondarribiko Alardearen ospakizunera joatea, emakumeek bertan berdintasunez parte hartzea bultzatzeko. - «Hondarribia berdintasunaren hiria» saria emateko ekitaldira joatea.
ARGIRI elkarte	San Martzial egunean Irunen egiten den Alarde Mistoaren ospakizunera joatea.
Minbiziaren aurkako Arabako elkarte	«Denok minbiziaren aurka» ekimenean parte hartzea, giza begizta bat osatuz.
ONCE Gizarte Taldea	Soldata Berdintasunaren Egunari eskainitako ONCEren bi kupoiaren aurkezpena joatea.
Emakume Master Cup	Eskuz binakako txapelketaren finalaren aurkezpena eta emakumezkoen eskuz banakako Master Laboral Kutxa txapelketaren sari-banaketa.
Maxizatzen Euskaldunon Elkarte	Azkoitian euskal idazleen lanei eskainitako Geure Gelatik Liburu Azokaren aurkezpena.
Hunkitu Arte Elkarte	Emakume Poeten Elkarte Feministaren «Genias» emakume poeten errezitalera joatea Arte Ederren Museoan.
Matazak indarkeria sexistaren kontra.	Pentsamendu feministari buruzko «Genero-desberdintasunaren eragina ingurune birtualetan» VI. Topaketaren inaugurazioa Astigarragan.
Gizarterako elkarte	«Prostituzioa: lege-aldaketak» jardunaldira joatea Gasteizen.



ENTITATEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Arabako Baserri Inguruko Emakumeen Sarea	Landa Eremuko Emakumeen XXIV. Topaketara joatea, Bastidan.
Aspasia emakume elkarte	Emakumeari eta Kirolari buruzko XIII. Mintegian parte hartzea, «Maskulinitatea kirolean» gaia jorratzeko.
Mundo Libre y Solidario (MULISOL) gobernuz kanpoko erakundea	«Independentsia ekonomikoa, funtsezko elementua emakumearen emantzipaziorako eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokarako» Emakume migratu afro-beltza Euskadin VIII. Jardunaldien inaugurazioan parte hartzea, Bilbon.
Kultura Communication Desarrollo KCD GGKEa	- «Ondarea, ekonomia eta komunikazioa genero-ikuspegiarekin» ikastaroko hitzaldia, Bilbon. - Film Sozialak Zinema Ikusezinen 2023ko Jaialdiaren (15. edizioa) amaiera-ekitaldira eta sari-banaketara joatea, Bilbon.
Zinemakumeak gara Elkartea	Zinemakumeak gara! ekimenaren 28. edizioaren inaugurazioan parte hartzea. Emakumeek zuzendutako zinemaren erakusketa, Bilbon.
BAFFEST	BAFFEST-Emakume Argazkilarien Jaialdiaren aurkezpen-ekitaldira joatea, Barakaldon.
FestVal – Telebista Jaialdia	Gasteizko FestVal jaialdian dokumental baten aurkezpena joatea.
EUSKAL FONDOA-Sahararen aldeko koordinazio unitatea	Harrera Saharako emakumeen ordezkari, eta ahalduntze politiko eta sozialari buruzko prestakuntza-saioa, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitza.
Arabako Hiesaren Kontrako Batzordea.	Antzerki Laborategiaren aurkezpen pribatura joatea: Gure boterea erdian, gorputzetik ekintza sozial zehatzera. «ISILTASUNA» izeneko erakusketarekin. NAHIKARI proiektuaren esparruan antolatua (Prostituzioaren arloko pertsonentzako arreta soziala eta laguntza)
UNESCO Etxea-UNESCO Euskal Herria	«Berdintasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideak: emakumeen zeregin erabakigarria 2030 Agendan», topaketara joatea, Bilbon.
EnpresariAK, Euskadiko Emakume Enpresari, Zuzendari eta Profesionalen Federazioa	Federazioak antolatutako <i>networkingera</i> joatea.
Arabako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartea	- Emakumeen Talentuari buruzko Elkarrizketen IV. ediziora joatea: «Zer industria behar du Euskadik?», Gasteizen. - 2023ko Arabako Emakumeen Talentuaren Sariak banatzeko ekitaldira joatea, Gasteizera.
Gipuzkoako Emakume Profesional, Zuzendari eta Enpresarien Elkartea (ASPEGI).	- ASPEGIren X. Foroan («Zaintzen ekonomia») parte hartzea, Donostian. - 25. urteurreneko ospakizunetara joatea Donostian.
Mujer S.XXI enpresa elkarte	2023ko Urrezko Orratza Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionaleko (CNIO) zuzendari zientifiko María Blascori emateko ekitaldira joatea, Bilbon.
Euskal Herriko Zuzenbide Historikoa eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa (FEDHAV)	Euskal Herriko zuzenbide historikoan emakumearen izaera juridiko-pribatua aztertze XXI. sinposioaren inaugurazioan parte hartzea, Donostian.



ENTITATEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Bizkaiko Psikologia Elkargoa	- «Salud Mental con perspectiva de género. Trabajando masculinidades» udako ikastaroaren inaugurazioa. - «Entender y Atender las Violencias Sexuales» leloarekin Bilbon egin den Genero Indarkeriaren aurkako Psikologiari buruzko XIV. Estatu Jardunaldien inaugurazioan parte hartzea.
SATSE Erizaintza Sindikatua	«Generoa eta Osasuna. Arlo sanitarioko genero-indarkeriari heltzea» estatu-jardunaldiaren inaugurazioa, Bilbon.
UPV/EHU	- PUNTUEUS Fundazioak eta Informatika Fakultateak antolatutako eta EAEko ingurune digitaleko emakume gazteei zuzendutako Gladys Saria aurkezteko prentsaurrekoan eta banatzeko ekitaldian parte hartzea. - Kriminologia, Generoa eta Zigor Sistema nazioarteko mintegiaren inaugurazioa, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak antolatua. - «Justizia ildo feministan IV. Sólo Sí es Sí Legea», Zuzenbide Fakultatearen Bizkaiko Sekzioak antolaturiko udako ikastaroaren inaugurazioa.
EGIBIDE-Molinuevo	Genero Berdintasuna Sustatzeko Goi Mailako Tituluaren aurkezpenean parte hartzea Gasteizen.
Real Sociedad de Fútbol	Emakumezkoen Real Sociedad - Athletic Club derbira joatea.



Giden aurkezpena.



“Emakumea eta ausazko jokoak” jardunaldia.





Segurtasun Sailak azaroaren 25ean antolatutako ekitaldia.



Emakumea Ertzaintzan sartu zeneko 40. urteurrena.



Biltzenek antolatutako jardunaldia.



Lan-jardunaldia SATEVIn.





“Kontzilia Abriendo caminos a la conciliación” kongresua.



Zaintzei buruzko biltzarra.



“Emakumeak Aberriak Eginez” liburuaren aurkezpena..



Hezkidetzari buruzko jardunaldia.





Imparables-Geldiezinak proiektuaren aurkezpena.



EITB Maratoia.



Elbira Zipitriari buruzko dokumentala estreinatzea.



“Behin eta Berrin” aurkezpena.





“Politika feministak: perspektibak eta erronkak” jardunaldia.



Hondarribiko Alardea.



“Hondarribia berdintasunaren hiria” saria.



Irungo Alardea.





Soldata Berdintasunaren Egunari eskainitako ONCEren kupoak.



Emakume Master Kup.



“Geure Gelatik” liburuaren azoka.



Poesia errezitaldia.





Emakumeari eta kirolari buruzko XIII. Mintegia: "Maskulinitatea kirolean".



"Ondarea, ekonomia eta komunikazioa genero-ikuspegiarekin" ikastaroa.



Saharako emakumeen delegazioa.



Antzerki Laborategia.





UNESCO Etxea topaketa.



Empresariak topaketa.



2023ko Emakumeen Talentuaren Arabako Sarien emanaldia.



Aspiguren 25. urteurrena.





2023ko Urrezko Orratza emanaldia.



Gladys saria emanaldia.



Genero Berdintasuneko Goi Mailako Gradua aurkeztea.



Real Sociedad – Athletic Club emakumezkoen futbol derbia.





2. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK



Berdintasunerako politika publikoak sustatzea da Emakunderen jarduketa-eremu garrantzitsuenetako bat. Berdintasunaren arloko lege-esparrua arautzeak eta berdintasunerako plan orokorraren bidez estrategia komun bat definitzeak, erakunde arteko koordinazio sendoarekin batera, EAEko berdintasunerako programak eta esku-hartzeak modu antolatu eta koherentean hedatzea errazten du.

Dirulaguntzen, hitzarmenen eta lankidetzaproiektuen bidez berdintasuna sustatzea, eta, horretarako, baliabideak eta adituen aholkularitza baliatzea, estrategikoki lagungarriak dira berdintasun-politikak garatzeko. Bide horretan, egindako jarduketaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ezinbestekoa da kontuak emateko eta etengabe hobetu ahal izateko.

Emakundek, gainera, EAE barruan zein kanpoan erreferentzia diren erakundeekin eta entitateekin lan egiten du, aliantzak sortzeko eta, aldi berean, berdintasuna maila guztietan sustatzen laguntzeko.

2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea

Eusko Jaurlaritzak 2023ko martxoaren 20an onetsi zuen 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duena (aurrerantzean, Berdintasun Legea). Arau horrek Eusko Jaurlaritzak legegintzaldian hartutako konpromisoari erantzuten dio, zeina Emakumeen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako zortzigarrenean baitago jasota.

«Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio testu bakar batean bateratu ditzan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xedapenak eta lege horretan egindako aldaketak, bat

etorri lege honekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legearekin. Eusko Jaurlaritzak bategin behar diren lege-testuak erregularizatu, argitu eta bateratu ahal izango ditu».

Testu bakar berri bat onartzearen helburu nagusia da argitasun handiagoa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudi autonomikoari, arau multzo bakar batean integratuz gai horri eragiten dioten xedapenak, eta, batez ere, berdintasun-politikak eta, prebentzioa eta erakundearen erantzuna hobetzeari eta indartzeari EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, 4/2005 Legearen lehen bertsioa onartu zenetik 15 urte baino gehiago igaro ondoren.

LEHEN URTEURRENEKO JARDUNALDIA: Berdintasun Legearen erreformaren lehen urteurrena zela eta, «Lege bat berdintasun aurrerapausoak ematen jarraitzeko» izeneko jardunaldia antolatu zen. Bertan, Estatuko eta nazioarteko ordezkariak eta adituek parte hartu zuten, helburu hauekin:

- Europar Batasunean indarrean dagoen lege-esparruaren eta izapidetze fasean dauden proposamenen berri ematea.
- Europar Batasuneko herrialde eta eskualdeetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izandako esperientzia eta praktika arrakastatsuak partekatzea.
- Berdintasunaren euskal legearen reforma ezartzearekin lotutako aurrerapenei eta lege horrek EAEko gizarteko sektoreei planteatzen dizkien erronkei buruzko informazioa ematea

Jardunaldiak hartzaille hauek izan zituen: EAEko erakunde publikoetako politikari eta teknikariak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko pertsonak, zuzenbidearen eta giza eskubideen arloko profesionalak,



akademia eta, oro har, berdintasunaren euskal legea aplikatzearen eraginpean dauden sektoreetako pertsona eta antolakundeak, hala nola enpresak, sindikatuak, alderdi politikoak, gizarte-erakundeak eta abar.

AGINDU BERRIAK HEDATZEKO IBILBIDE-ORRIA: Era berean, Berdintasun Legearen erreformatik eratorritako agindu berriak aplika daitezten bultzatzeko, Emakundek hainbat txosten egin ditu Jaurlaritzako sailentzat eta inplikaturako gainerako erakunde publikoentzat. Txosten horietan, haietako bakoitzari dagozkion agindu berriak identifikatzen dira. Gainera, bakoitzari etorkizunean agindu horiek aplikatzeko egingo dituen ekintzei buruzko informazio osagarria emateko eskatu zaie. Hori guztia, Sailarteko Batzordearen eta Erakunde arteko Batzordearen esparruan.

Orobat, legegintzako dekretua garatzeko oinarritzko dokumentuak lantzen jarraitu da honako eremu hauetan: kontratazio publikoa,



“Berdintasunean aurrera egiten jarraitzeko legea” jardunaldia.

dirulaguntzak, Administrazioako langileen prestakuntza, plan estrategikoak eta sektorialak eta Berdintasunerako Behatokia.

2.2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

2023an, 2022an hasitako lan-prozesuarekin jarraitu da, EAEko botere publikoen berdintasunaren arloko jardura bideratu behar duen plan orokorra egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA: Aurreko zazpi planak bezala, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia izeneko 8. plana plangintza-tresna bat da: operagarritasuna emateaz gainera, Berdintasunerako Legearen aginduak artikulatzeko aukera ematen du. 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuekin eta Europar Batasuneko beste plangintza estrategiko batzuekin bat etortzea bilatzen dute haren epe luzerako ikuspegiak eta 2030era arteko irismenak.

2030 Estrategia da berdintasunaren arloko erreferentzia-esparru estrategikoa. Emakundek definitzen du, eta EAEko botere publiko guztiei eragiten die, zeinek autonomiaz eta malgutasunez lan egin behar baitute beren eskumenen, lehentasunen, ibilbidearen eta errealitatearen arabera. Jarraibide eta orientabide homogeen ematen dizkie EAEko erakunde publikoei, aurrera jarrai dezaten gure gizartean emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea benetan aplikatzeko bidean, beren berdintasun-politiken eta -planen bidez.

Berdintasunerako 2030 Estrategia oso dokumentu landua da Emakunderen barruan, baina, aldi berean, alderaketa-maila handia izan du legeak ezarritakoaren arabera. Partaidetza-prozesu ireki, pluralista



eta batutzaile baten garapenaren emaitza da. Prozesu horretan, legeak ezartzen dituen interes-taldeen ekarpenak jaso eta sistematizatu dira. Eragile motaren eta plana egiteko unearen arabera, hausnarketarako hainbat kanal eta gune prestatu dira, dokumentua kontrastatzeko eta ekarpenak jasotzeko.

Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek, toki-entitateek eta EAEko beste erakunde publiko batzuek bete beharreko ibilbide-orria da estrategia, antolaketa sozial demokratikoagoa, bidezkoagoa, berdinzaleagoa, jasangarriagoa eta indarkeria matxistarik gabea eraikitzen laguntzeko.

Estrategiaren lehentasuna legea garatzea izan da eta, aldi berean, orain arte berdintasunaren arloan EAEko plangintza bideratu duten oinarrien

2030 ESTRATEGIA EGITEKO PROZESUA	
GINARRI-DOKUMENTUA	Planaren funtsezko elementuak definitzeko 2022an hasitako barne-hausnarketako prozesuaren ondoren, oinarritzko dokumentua maila teknikoan eta sozialean kontrastatu zen Eusko Jaurlaritzan, foru-aldundietan eta EAEko udaletan lan egiten duten berdintasun-teknikariekin, bai eta Emakunde Aholku Batzordeko emakumeen elkarten ordezkariekin ere.
ATARIKO DOKUMENTUA	Jasotako ekarpen guztiekin, 2023an Estrategiaren atariko dokumentua egin zen, helburu gisa harturik alderatze politikoa egitea Emakunde Zuzendaritza Kontseiluarekin, Sailarteko Batzordearekin eta Erakunde arteko Batzordearekin. Ondoren, estrategia kontsulta publikoko fasera igaro zen, berdintasunaren aldeko mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak, ikastetxeek, alderdi politikoek eta hala nahi zuten antolakunde eta pertsona guztiek ekarpenak egin zituzaten, baita gizarte-, enpresa- edo sindikatu-antolakundeek ere.
BEHIN BETIKO DOKUMENTUA	Jasotako ekarpenak ikusita, eta guztiak aztertu ondoren, behin betiko dokumentua egin zen, eta nahitaezko txostenak eskatu zitzaizkien Lehendakari Zuzendario Zuzendaritzari, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari, Aurrekontu Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari.

jarraipena ahalbidetzea. Era berean, plangintza baten aldeko apustua egin da:

- Estrategikoagoa, 2030 Agendako GJHeKin bat datorren epe luzerako ikuspegiarekin.
- Berritzaileagoa eta, berdintasunaren arloko funtsezko elementuak jorratzeaz gainera, alderdi hauek ere lantzen ditu: intersektionalitatea, zainketak, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak, ahalduntze eta lidergo feministak, gizonen inplikazioa, trantsizio teknologikoak, ekologikoak, sozialak eta lurraldekoak, euskararen erabilera biziberritzea, etab.
- Eskuragarriagoa, ikuspegi pedagogikoagoa izango duena, gizartean errazago uler dadin, eta dokumentu sintetikoago batekin, eranskin osagarriekin batera, maila teknikoan inplementatzeko.

BETETZE MAILAREN JARRAIPENA: Bestalde, indarrean dagoen berdintasun-planaren garapen-maila ezagutzeko, jarraipena egiten da urtero aplikazio informatiko baten bidez, eta horrek informazio telematikoa biltzeko bidea errazten die erakundeei. 2023an, 2022an egindako jardueri buruzko informazioa bildu da. Eta 145 entitatek emandako informazioan oinarrituta, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren Ebaluazioa egin da (2022).

BERDINGUNE: Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziazko ataria da Berdingune, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, gure erkidegoan arlo horretan dauden baliabideak, programak eta zerbitzuak biltzen dituen. 2023an, atariaren egituraketa eta edukiak berrikusi eta hobetu egin dira, eta bildutako informazioa eguneratu da.



2.3. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana

2018an, Euskadiko soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategia onetsi zen. Plana garatzeko, lehen Plan Operatibo bat jarri zen abian (2019-2020 aldian egon zen indarrean), eta, jarraian, bigarren Plan Operatiboa prestatu zen, 2022-2025 aldiari dagokiona.

Azken Plan Operatibo horrek 74 neurri aurreikusten ditu, 4 ardatzetan oinarrituta:

- Soldata/ordua desberdintasuna murriztea.
- Desberdintasuna murriztea lanaldiari dagokionez.
- Gizartea heztea eta sentsibilizatzea.
- Enpresak eta sindikatuak sentsibilizatzea.

Hauetara dira neurri horiek garatzeko ardura duten sailak eta organismoak:

- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena.
- Ekonomia eta Ogasuna.
- Hezkuntza.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak, Emakunderen bidez.
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua.
- Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.
- Lehendakaritza.
- Osasuna, Osakidetzaren bidez
- Lana eta Enplegua



Emakunderen eta LHKren arteko Lankidetzaren Hitzarmena.

Legegintzaldi-aldaketarekin, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Emakunderen bitartez hartu ditu bere gain alor horretako lidergoa eta koordinazioa Lehendakaritzaren partetik.

Zehazki, 2023an ekintza hauek garatu dira:



JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
Koordinatzaile Nagusia	<ul style="list-style-type: none"> - Uztailaren 27ko bilkuran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak 2022-2025 Plan Operatiboaren gobernantza-ereduan aurreikusitako espazioa sortzea onetsi zuen, plan hori sailen artean bultzatu eta koordinatzeko. Halaber, Plan Operatiboa bultzatzeko eta haren hedapena eta eraginkortasuna handitzeko, erabaki zen Plan Operatiboaren garapenean sartzeko Sailarteko Batzordean parte hartzen duten sail, organismo eta entitate guztiak. Halaber, erabaki zen Sailarteko Talde Teknikoari proposamen bat egiteko agintzea, aipatutako Sailarteko Batzordean adostutakoa gauzatzeko. - 2021. eta 2022. urteetako Plan Operatiboaren jarraipen-txostenak egin dira, inplikaturako sail guztien aldetik behar zen informazioa bildu ondoren. - Emakunderen webgunean gune berri bat sortu da strategiaren, plan operatiboen eta jarraipen-txostenen inguruan.
Elkarrizketa Sozialaren Mahaiarekin Elkarlanean Aritzea	<ul style="list-style-type: none"> - Emakunderen zuzendariak 2023ko otsailaren 21erako deitutako Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko lantaldeetako presidenteekin izandako bileran parte hartu zuen. - Genero Berdintasunari buruzko Lantaldearen bileretako buru izan da zuzendaria. Lantalde hori sindikatueta, enpresa-antolakundeetako eta Eusko Jaurlaritzako sailtako ordezkariekin sortu zen, Lan Harremanen Kontseiluaren laguntzaz. Honako alderdi hauek sustatzen dihardu: kontziliazio ardurakidea, enpresetako berdintasun-planak, genero-berdintasuna negoziazio kolektiboan, eta soldata-arrakala murrizteko estrategia eta ekintza-plan operatiboa garatzea eta hari ekarpenak eta jarraipena egitea. Talde horrek bilera bat antolatu du. - Genero-berdintasunari buruzko lantaldeak eskatuta, eta Lan Harremanen Kontseiluaren eta Emakunderen arteko hitzarmenaren esparruan, idazkari tekniko bat kontratatu zen Lan Harremanen Kontseiluko eta Emakundeko langileen artean ikaskuntza-talde misto bat eratzen eta abian jartzen laguntzeko. Informazioa trukatzeko eta ad hoc eginiko prestakuntza-plan baten bidez trebatzea da talde horren helburua eta, ondoren, berdintasun-planen negoziazio-batzordeei aholkularitza eman ahal izatea, 3 lurralde historikoetako enpresa kopuru jakin batekin esperientzia pilotu baten bitartez.
Gizonduz y Nahiko programak Garatzea	<p>GIZONDUZ: gizonen eta mutikoen artean zaintzaren eta etxeko lanen ardurakidetzaren etika-praktika sustatu da.</p> <p>NAHIKO: berdintasunean oinarritzen den elkarbizitza landu da, balioetan oinarritzen den hezkuntzaren bidez, giza eskubideak eta emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko genero-rolen analisi kritikoa abiapuntu izanik.</p>
Enpresetan berdintasun-planak egiteko laguntza	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresetan soldata-arrakala murrizteko lan egiten jarraitu dugu, eta, horretarako, berdintasunerako planak orokortzeko lanak babestu ditugu. - Helburu horretara bideratutako dirulaguntza-lerroaren zuzkidura ekonomikoari eutsi zaio.
BAI SAREAREN materialak eta jardunaldia egitea	<p>Espazio seguruen, espazio interseksionalen eta espazio jasangarrien taldeak diseinatu dituen produktuak garatu ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bai Sarea Vademecum. - LAP: seinale moreak. - Puntu kritikoaren mapa. - Interseksionalitatearen gurutzegrama. - Interseksionalitatearen zirkulua.



2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jarduketak koordinatzeko organoa da sailarteko batzordea. Emakunderi atxikita dago; batzordeburua Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeburuordeak, berriz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Emakunderen zuzendaria dira. Erakundeko idazkari nagusiak idazkari-lanak egiten ditu, eta, horretaz gainera, honako hauek hartzen dute parte batzordekide gisa: Lehendakaritzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburuorde batek, eta, 2022tik, berdintasunerako administrazio-unitateak formalki sortu dituzten organismo autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzeko zuzendari batek.

2023ko uztailaren 27an egin du ohiko bilkura, eta gai hauek landu ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan Eusko Jaurlaritzak 2021ean gauzaturako jardueraren jarraipenari buruzko txostena aurkeztea.
- Sail, organismo autonomo eta zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzak legegintzaldiko berdintasun-planak garatzeko abian jarritako edo egindako ekintzarik garrantzitsuena aurkeztea.
- EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiari buruzko informazioa.
- EAEn soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiari buruzko informazioa.
- Sailarteko Lantalde Teknikoak egindako lanaren gaineko informazioa.

Batzordeak Sailarteko Talde Tekniko bat dauka, batzordekideei babes eta aholku teknikoa emateko. Emakundek Sailarteko Talde Teknikoa bultzatu eta koordinatzen du, eta zeregin horrekin uztartzen du beste bide batzuen bitartez ere Jaurlaritzako sailei, organismo autonomoei eta ente publikoei eskaintzen dien aholkularitza eta lankidetzak.

Sailarteko Talde Teknikoa

2023an, Sailarteko Talde Teknikoa 4 aldiz bildu da, urteko lan-plana adosteko eta gai hauei buruz hitz egiteko edo informazioa emateko:

- Taldearen beraren plangintza 2023-2024 aldirako.
- EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia.
- Genero-ikuspegia txertatzea plan sektorialetan eta estrategikoetan.
- Ardatz 2030 Plangintza Estrategikoaren proiektua kontrastatzea.
- Sailarteko Batzordearen bileran jorratutako gaien berri ematea.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.



2.5. Eusko Jaurlaritzako sailekin elkarlanean aritzeko ildoak eta proiektuak

Sailarteko Batzordearen esparruan eta Sailarteko Talde Teknikoan egiten den lanaz gain, Emakundek aldebiko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten organismoekin eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan dituzten eskariak kontuan hartuta. 2023. urtean, kolaborazio hauek nabarmendu behar dira:

ENTITATEAK	PROIEKTUAK
Lehendakaritza	<ul style="list-style-type: none"> - Euskadi Basque Country 2030 Estrategia garatzen eta ezartzen laguntzea. - Euskadiko 2030 Agenda proiektuan parte hartzea.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Estatistika-organoarekin lankidetzan aritzea, emakumeen kontrako indarkeriaren irismenari buruzko inkesta bat egiteko. - Gazteplanaren Sailarteko Batzordean (Gazteria Zuzendaritza) parte hartzea Gazte Plana garatzeko eta haren jarraipena egiteko, Emakundek gazteei zuzendutako berariazko ekintzak txertatuz. - Familiaren Euskal Kontseiluan parte hartzea. - Adinekoen Kontseilu Sektorialean parte hartzea. - Migrazioaren eta Asiloaren Foroko osoko bilkuran parte hartzea. - Migrazioaren eta Asiloaren Foroko berdintasun-batzordean parte hartzea. - Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzea. - Adikzioen Kontseiluan parte hartzea. - Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartzea.
GOGORA - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzea.

ENTITATEAK	PROIEKTUAK
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Koordinazio- eta plangintza-lanak, segurtasun, higiene, ingurumen eta lan-osasunaren arloetan genero-ikuspuntutik gauzatzen diren prestakuntza-, informazio-, dibulgazio- eta aholkularitza-jarduketara bateratuen hitzarmenen esparruan.
Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa publiko aurreratuaren eredia garatu eta ezartzeko elkarlanean aritzea, Euskalitekin batera.
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua	Lankidetzan eta koordinazioa berdintasunean oinarritutako prestakuntza transbertsalaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren organismo autonomoen zerbitzura dauden langileentzat.
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume Nekazarien Estatutuaren jarraipena egiteko batzordean parte hartzea. - Emakumeak Industrian eta Teknologian proiektuan parte hartzea.
IHOBE	EAEko klima-aldaketari buruzko materialak genero-ikuspegia kontuan hartuta sortzeko prozesuan elkarlanean aritzea.
Eustat - Euskal Estatistika Erakundea	Euskal Estatistika Kontseiluan parte hartzea.
Hezkuntza Saila	<p>Hezkidetzan ezartzeko lankidetzan, Euskal Hezkuntza Sistemaren II. Hezkidetzan Planaren Jarraipen Batzordean eta Batzorde Teknikoan parte hartuz. Haren jardueren artean sartu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nahiko programa ezartzea. - Interesa duten ikastetxeei Beldur Barik eta Gizonduz ekimenetako material eta unitate didaktikoak eskaintzea Hezkidetzagunean. - EAEko ikastetxeetako berdintasun-egoerari buruzko diagnostikoa egitea, EAEko ikastetxeetako berdintasunaren errealitatea ezagutzeko.



ENTITATEAK	PROIEKTUAK
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	Hiri-antolamenduko plan orokorretan Generoaren Araberako Inpaktua Ebaluatzeko Gida osatzeko elkarlanean aritzea.
Osasun Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendaritza Batzordearen eta osasuneko batzorde teknikoaren bitartez, politika guztietan elkarlanean aritzea, eta Emakundek arlo horretan egindako jarduera guztien txostena aurkeztea. - Lankidetzaren Euskadi 2030 Osasun Planarekin.
Osakidetzaren	Emakumeen genitalen mutilazioaren arloan Osakidetzarekin elkarlanean aritzea, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Hezkuntza Sailarekin ere.
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatu eta ezartzeko elkarlanean aritzea. - Euskararen Agenda Estrategikoaren Jarraipen Batzordean parte hartzea. - Euskararen Aholku Batzordearen Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezian parte hartzea. - Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrean parte hartzea.



Jardunaldia: "Klima-aldaketa Euskadin genero-ikuspegitik"



2.6. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa

Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa da genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat.

Sailek genero-inpaktuari buruzko txostenak zuzen egiten dituztela egiaztatzeari eta hobekuntza-proposamenak emateari ekin zion Emakundek 2007an; hala, 2023an, Emakundek 69 espediente jaso eta aztertu ditu. Taula honetan, urtez urte izandako bilakaera ageri da.

Azken urteetan metatutako esperientziaren eta Berdintasun Lege berriaren ondoriozko agindu berrien arabera, 2023an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan egindako araudiaren genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioarekin lotutako prozesuak hobetzeko eta indartzeko prozesua hasi zen.

2006-2023 DATUAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
2016	2	32	34	2	70
2017	4	39	25	1	69
2018	7	37	23	0	67
2019	12	43	14	0	69
2020	3	26	24	1	54
2021	8	32	18	1	59
2022	9	40	37	1	87
2023	3	47	19	0	69
GUZTIRA	165	875	565	35	1.640



2.7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde arteko Batzordea

Erakunde arteko Batzordeari dagokio erkidego-, foru- zein toki-administrazioek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egiten dituzten jarduketak koordinatzea. Emakunderi atxikita dago; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua du buru 2022tik, eta EAEko Administrazio Publikoko hiru mailek ordezkari berdina dute⁷.

2023an, ekarpenak biltzeko, 2030eko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategiaren proposamena igorri zitzaizen Batzordeko eta Batzordeari laguntzeko Erakunde arteko Talde Teknikoko kideei.

Lantalde teknikoak

Erakunde arteko batzorde horren esparruan, Emakundek lantalde tekniko hauek bultzatu eta koordinatzen ditu:

Kontratazio publikoan berdintasuna sustatzeko aholkularitza zerbitzua

- Helburua:** Kontratazio publikoaren eremuan genero ikuspegia txertatzeko laguntza ematea, kontuan izanda Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken aldaketak.
- Nori zuzendua:** EAEko erakunde publikoei zein pribatuei.
- Kontsultak** 2 egun balioduneko epean (48 ordu) erantzungo dira.
- Doakoa.**
- Informazio gehiago:** <https://www.emakunde.euskadi.eus/politika-publikoak/-/informazioa/berdintasunaren-aldeko-klusulak/>

Aholkularitza-zerbitzua.

- **Sektore publikoaren hitzarmen, dirulaguntza eta kontratueta berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak:** 2023an, kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan berdintasun-klausulen aplikazioa ebaluatzen lagundu du taldeak, baita aholkularitza-zerbitzua zabaltzen ere berdintasuna sustatzeko Emakundek Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan doan emandako kontratazio publikoan.

- **Berdintasun-politikan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzea eta erakundearteko koordinazioa hobetzea:** 2018an kalitate estandarrak definitu ondoren, 2019an erakunde arteko koordinazioa hobetzeko lanari ekin zitzaion, bereziki toki-esparruko esku-hartzeetan.

2023an ere lan hori egiten jarraitu da, batetik, gaiaren egoera zein den jakiteko, eta, bestetik, erakunde arteko koordinazio optimoa lortzeko zer etorkizun nahi den adosteko. Eginahal horretan, erreferentzia gisa hartu dira gaiaren egoera eta Kalitate Estandarretan eta indarrean dagoen berdintasun-legedian ezarritakoa.

- **Berdintasuna europako inbertsioko eta egiturako funtsetan:** aurrera egin da 2020-2023 aldirako 2020an onetsi zen planaren ezarpenean, EIE funtsen jarduketan berdintasuneko administrazio-gaitasuna ezartzeko, baita esku hartzen duten talde eta eragileetan ere. Horretarako, 2021ean sortutako 7 talde eragileekin lan egiten jarraitu du 2023an —funts eta administrazio-maila bakoitzeko bana dago—, baita hiru esperientzia pilotuarekin ere (20 bilera guztira). 2023an, talde eragileekin egindako lana gaikuntzan oinarritu da, 21-27 aldirako programen inplementazioan genero-ikuspegia txertatzeko. Urrian, Europako Funtsetan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Politikak txertatzeko Sarearen 17. osoko bilkura egin zen EAEn, eta, besteak beste, EAEko jardunbide egokiak aurkeztu ziren, genero-ikuspegia Europako Funtsetan txertatzeko.



Europako Funtsen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Politiken Sarearen 17. osoko bilkura.

2.8. Lankidetzeta-proiektuak EUDELEkin

2005. urtetik, EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartek eta Emakundek lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dituzte, toki-mailan berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko, baita emakumeen kontrako indarkeria mota oro prebenitzeko eta ezabatzeko ere.

Hitzarmen horiek urteotan garatzen ari diren ekimenen bidez gauzatzen dira. Jarraian, ekimen horien barruan 2023an egindako jarduerak gogorarazten dira.

BERDINSAREA - BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKADIKO UDALEN SAREA: Sare hori Emakunderen ekimenez sortu zen, eta 2005ean EUDEL/Euskadiko Udalen Elkartearekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren bidez jarri zen abian.

Sareak honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELEko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dute, eta honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, sarearen jarduna gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politiketikiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura sarearen gobernu-organoa da, eta sarearen osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzar Teknikoa. Udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasun-technikariak, Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariak eta Emakundeko teknikari batek osatzen dute.

2023an, Berdinsarearen Jarraipen Batzordearen eta Batzar Teknikoaren bileretan parte hartzeaz eta dagozkion erabakien jarraipena egiteaz gainera, proiektu eta talde hauetan ere esku hartu da:



PROIEKTUAK	DESKRIBAPENA
Berdinlan	<p>Honako batzorde hauen lanarekin jarraitu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <u>Indarkeriaren aurrean udalak erantzuteko batzordea</u>: Batzordeari aholkularitza indibidualizatua emateko lan egin da. Erakunde arteko III. Akordioaren berrikuntzak partekatu dira, eta gogoeta egin da tokian-tokian emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioaren arloko posizionamenduari eta aurrerapen-proposamenei buruz. Hausnarketa-lanari ekin zaio, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko tokiko koordinazio-protokoloetan eguneratu behar diren gaiak identifikatzeko. - <u>Genero-ikuspegiaren transbertsalitateari buruzko batzordea</u>: Batzordea osatzen duten pertsona gehiagorekin lanean jarraitu da tokiko berdintasun-politiken kalitate-indizea kalkulatzeko autobalorazio-tresnan. Tresna hori Erakunde arteko Batzordeak 2018an onetsitako kalitate-estandarretan dago oinarrituta. - <u>5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasuna sustatzeko batzordea</u>: udalerrri txikietako kalitate-estandarrei buruzko gida lantzen jarraitu da, eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasun-politikak antolatzeko laguntza- eta aholkularitza-lana egin da.
Berdintruke	<p>Bi saio tematiko egin dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - «Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakunde arteko III. Akordioaren berritasunak toki-eremurako». - «Tokiko zainketa-sistemen praktika aurreratuen mapa. Zainketak ikuspegi feministaz eraldatzeko irizpideak». <p>Horretaz gainera, Berdintrukeen jardunbide egokien 2022ko bilduma egin da (berdintasun-politikak adineko emakumeekin; Polizia Koordinazioa Indarkeria Protokoloetan; eta Berdintasun Klausulak).</p>

PROIEKTUAK	DESKRIBAPENA
Atxikimenduak eta Harrera-planak	Arabako Lautadako Kuadrilla Berdinsareari atxikitzea kudeatu da.
Informazio Buletina	2023ko 3 informazio-buletin diseinatu eta egin dira, Berdinsareak garatutako jarduerak eta beste albiste interesgarri batzuk zabaltzeko.
Beste batzuk	<p>Ekainean, Bilbon, Donostian eta Gasteizen egin ziren 3 informazio- eta prestakuntza-tailer Emakundek sustatuta eta EUDELen lankidetzarekin. Saio haien helburua udal-arduradunak sentsibilizatzea zen sexu-indarkeriaren intzidentziari eta jai guneetan zabaltzen den moduari buruz, bai eta haien aurrean jarduteko irizpideei buruz ere.</p> <p>2023. urtea tokiko gobernuetako ordezkari-aldaketak baldintzaturik egon da, maiatzean izandako hauteskundeen ondorioz. Sareko jardueraren, zentzuaren eta partaidetza-dinamiken balantze-urtea ere izan da. Abian jarri da Berdinsarearen ibilbidea ebaluatzeko prozesua, sorreratik orain arte.</p>



BIZTANLE GUTXIKO UDALERRIEI LAGUNTZEA, BERDINTASUN-POLITIKAK GARA DITZATEN:

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere biztanle askoko udalerrietan. Hala ere, udalerrri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik —besteak beste, langileak kontratatzea, berdintasun-planak egitea eta berdintasun-politiketarako aurrekontua bideratzea—.

Horregatik, 2011tik Emakundek eta EUDELeK lankidetzaz hitzarmenak sinatu dituzte, biztanle gutxiko udalek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikak martxan jar ditzaten, Berdinsarearekin koherentea izango den estrategiarekin bat etorri eta epe ertainean sare horretan sartu ahal izateko beharrezko diren baldintzak sortzen saiatzeko.

2018tik, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako eta hainbat udalerrri txiki biltzen dituzten kuadrilla edo mankomunitateetako teknikariak elkartzen dituen batzorde tekniko bat dago.

2023an, udalerrri txikietan berdintasun-estrategia egituratzeko gidaren edukiak garatzen jarraitu du batzordeak. Gidak elementu teorikoak zein praktikoak biltzen ditu, EAEko udalerrri txikiei genero-mainstreaminga txertatzen laguntzeko, berdintasunerako politika publikoen kalitate-estandarrak kontuan hartuta.

Gainera, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasun-politikak antolatzeko laguntza eta aholkularitza eskaini da.

VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA: 2023. urtea urte erabakigarria izan da Virginia Woolf Basqueskola proiektuarentzat, maiatzean udal-hauteskundeak deitu ondotik.

Basqueskolaren jarduna honako hauetan oinarritu da 2023an:

PROIEKTUAK	DESKRIBAPENA
Basqueskola Sarea	<p>Fase hauek egin dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - I. fasea: 2019-2023 legegintzaldiko talde eragilearen eta batzordeen lana ixtea. - II. fasea: udal-hauteskundearen aurretik harrera-estrategiaren inguruan lantaldeak osatzera birbideratzea. - III. fasea: 2023-2027 legegintzaldirako talde eragile eta batzorde berri bat osatzea.
Hauteskunde-emaitei buruzko azterlana	<p>Hauteskunde-emaitei buruzko azterlan bat egin da genero-ikuspegitik, azterketa-ardatz hauek kontuan hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeek tokiko gobernuetan duten parte-hartzearen bilakaera (hautagaitzak, emakume hautetsiak, hautagai-zerrendetako buruak, alkate hautetsiak eta abar). - Lidergoa (alkatetzak, emakumezko alkateak dituzten udalerrien tipologia eta abar). - Emakumeek tokiko gobernuen eraketan parte hartzea. (parekotasun-indizea; erantzukizun-arloak, liberazioak eta abar). - Emakumeen parte-hartzearen bilakaera udal-hauteskundeetan.
Harrera-Jardunaldiak	<p>2023ko udal hauteskundearen ondoren, hautetsiei harrera egiteko jardunaldiak egin ziren; hala, erabaki zen lurralde bakoitzean saio bat antolatzeko, ahalik eta hautetsi gehien bertaratzeko errazteko. Jardunaldiok aukera ona dira udal-politikan lehen aldiz sartzen diren hautatu berriak karguan errepikatzen duten zinegotzietan elkartzeko. Emakume multzoaren bistaratzeko karga sinboliko handia du, bai emakume horiekiko, bai taldeekiko, bai kanporako.</p>
Bidelagun	<p>Hautetsi berriei laguntzeko Bidelagun programa garatu da, 3 fasetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bidelagun 2023-2024 Programa birdefinitzea. - Aholkulariak erakartzea eta gaitzea. - Hautetsi edo mentoratu berriak erakartzea eta mentoreekin parekatzea. - Programa zabaltzeko eta mentoratuak erakartzeko, komunikazio-kanpaina bat egin da.



PROIEKTUAK	DESKRIBAPENA
Prestakuntza-Eskaintza	<ul style="list-style-type: none"> - BASQUEADITUAK: «BasqueAdituak» berdinen arteko prestakuntza-pilulen programa 2020an planteatu zen lehen aldiz Basqueskolan, prestakuntza- eta laguntza-ekimen gisa, hautetsien arteko elkartasunean eta ezagutza-trukean aurrera egiteko. 2023an egindako pilula: «EAEko tokiko politikan emakumeen kontrako indarkeriari buruzko hurbilketa». - BASQUESKOLA IBILTARI: EAEko hautetsi guztiei zuzendutako emakumeen ekintza politikoari eta berdintasunari buruzko sensibilizazioa eta hausnarketa errazteko, ad hoc prestaturiko tailer komun bat egiteko aukera eskaintzen da, hala eskatzen duten udalerrien beharren arabera garatua. Laudion tailer bat egiteko eskaera egin da, eta 2024ra arte atzeratu da.
Komunikazio- eta hedapen-ekintzak	Jarraipena eman zaio komunikazio- eta hedapen-estrategiari. Estrategia hori webgunean, buletin digitalean eta FACEBOOK eta TWITTER sare sozialetako edukien zabalakundearen oinarritu da. Buletin elektronikoa bidaltzen jarraitu da.
Hautetsi berriei entregatzeko materiala	Basqueskolari buruzko informazio dinamikorako esteka duen QR bat barne hartzen duten koadernoak diseinatu eta eskuratu dira. Material horiek emakume hautetsi berriei emango zaizkie 2023rako aurreikusitako harrera-jardunaldietan.
Beste batzuk	<ul style="list-style-type: none"> - InteRed garapenerako gobernu kanpoko erakundea oinarritzeko pilula bat egiten ari da Politika-arloko Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruz. - Basqueskolak EHUko Udako Ikastaroetan parte hartu du «Emakumeen lidergo eraldatzaileak berdintasuneko gizarte bat lortzeko». - Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluaren saioetan parte hartzea. - Trukea Saharako emakume politikariek. - Lankidetzak AVCrekin eta NBE MUJERES EI Salvadorrekin. - Eusko Jauraritzaaren 20/30 GJH Agendan parte hartzea.

Bidelagun 2023 Programaren aurkezpena

Lekukoa pasatzen: emakume bati lagun iezaiozu bere udaleko kargu berria hartzen

Elkarrenganako prozesu aberasgarria, konfiantzan, hurbiltasunean eta ahalduntzean oinarritua

Maru Sarasola Anzola

Bidelagun programa.

2.9. Dirulaguntzak, udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateentzat

Dirulaguntza-deialdia da Emakundek erabiltzen duen beste tresna bat udalerriei laguntza tekniko emateko; zehazki, toki-entitateei zuzendutako dirulaguntza horien bidez, udalerrietan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, Gobernuak EAerako Esparru Planaren ildo nagusiei jarraituz.

2023ko deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 500.000 eurokoa izan da, eta 40 proiektu diruz lagundu dira. Aipatzekoa da dirulaguntzak jaso dituzten proiektu horiek 5.000 biztanletik gorako 17 udalerriri dagozkiela, 5.000 biztanletik beherako 17 udalerriri eta 5.000 biztanletik beherako 27 udalerririk osatutako 6 mankomunitate edo kuadrillari⁸.



2.10. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak) 16.6 artikuluan ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru- eta toki-administrazioen berdintasun-planari buruzko txostenak egin behar ditu Emakundek, txosten horietan adierazteko ea planen edukiak Gobernuaren Plan Orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezzen: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea; alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarri izatea; eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten, sailtako 13 planen, eta toki-entitateetan berdintasuna sustatzeko 10 planen gaineko txostenak egin dira eta ez da foru-administrazioetako planik egon. Hurrengo taulan datoz zehaztuta.

Lehen Planak	Bigarren Planak	Hirugarren Planak	Laugarren Planak	Bosgarren Planak
Atxondoko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana (2023-2026)	Arteako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2023-2026)	Areatzako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2023-2026)	Sestaoko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana (2023-2026)	Irungo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana (2023-2027)
Uliko Emakume eta gizonen berdintasunerako I. Plana (2023-2026)	Igorreko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2023-2027)	Azkoitiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2023-2027)		
		Errenteriako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2023-2031)		
		Txorierriko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2024-2027)		





3. ESTATU-MAILAKO ELKARLANA ETA NAZIOARTEKOTZEA



Egungo testuinguru globalean, Emakundek aldaketa-eragile aktibo eta erreferentziazkoa izan nahi du emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean, bai EAEn bai EAetik kanpo. Horretarako, gero eta indar handiagoz dihardu Espainiako beste administrazio batzuekin elkarlanean, baita nazioarteko erakundeekin elkarlanean ere, 2023-2026 aldirako Nazioartekotze Planaren eta Euskadi-Basque Country 2025 Estrategiaren esparruan.

Aliantzak ezartzeak eta elkarlanerako estrategiak sortzeak aukera ezin hobea ematen dio Emakunderi, ezagutza eta baliabideak erakarri eta trukatzeko eta EAE nazioarteko ekintzan nabarmen kokatzeko, garapen jasangarriko nazioarteko agendaren helburu globala betetze aldera: sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzea. Hori guztia, mundu globalizatu batean emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria arazo unibertsalari aurre egiteko funtsezko bide gisa.

3.1. Lankidetzaz-ildoak Estatuko berdintasun-arloko organismoekin

Berdintasun Ministerioarekin egindako lan-esparruan, hauek dira lankidetzaz-bideak:

BERDINTASUNEN KONTZERENTZIA SEKTORIALA: Berdintasuneko Kontzerentzia Sektoriala Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoek emakume eta gizonen berdintasun-politikaren inguruan lankidetzaz jarduteko organoa da. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak martxoaren 3an osoko bilkurarako deitutako bilerean parte hartu du. 2023ko irailaren 4an, era berean, Batzordearen bilera batean parte hartu da, zeina Berdintasuneko Kontzerentzia Sektorialaren lan- eta laguntza-organoa orokorra baita.

GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNUAREN ORDEZKARITZA: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak deitutako bilerean parte hartu du. Hona hemen bilera horiek:

- BILERAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEKIN: lan-bilera batean parte hartu da (apirilaren 14an).
- KRISI-ZENTROAK SORTZEA: alde biko 3 bilera egin dira hiru foru-aldundietako ordezkariekin eta Emakunderekin (otsailaren 24an, ekainaren 2an eta abenduaren 5ean), EAeko krisi-zentroen sorreraren gauzatze-mailaren jarraipena egite aldera.
- EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA: Emakunderen zuzendaria bi urterako izendatu dute Behatoki kide izateko. Hauek dira Behatokiaren osoko bilkura osatuko duten autonomia-erkidegoak: Nafarroako Foru Komunitatea, Euskal Autonomia Erkidegoa, Valentziako Erkidegoa, Andaluzia, Aragoi, Asturiasko Printzerria eta Balear Uharteak.



Emakunderen zuzendariak, Segurtasun eta Justizia Saileko ordezkariekin batera, Krisi Batzordearen bileran parte hartu du. Bilera horietan, feminizidio-kasuetarako informazioa biltzen da, biktimek erabiltzen dituzten zerbitzuei eta erakundeei loturik betiere.

Bestalde, lankidetzeta hauek egin dira beste administrazio publiko batzuetako berdintasun-organismoekin:

- **Bartzelonako Udala:** Emakunderen zuzendariak Bartzelonako Udaleko Maskulinitateen Zentro Plurala bisitatu du 2023ko urtarrilaren 23an.
- **Kataluniako Generalitatea:** lankidetzan jardun da «Programa Marc per a la promoció de Masculinitats Antimasclistes, Igualitàries i Inclusives» prestatzeko.



Equinet-en delegazioa.

3.2. Europaren proiektuari laguntzea

Europa-mailan honako lankidetzeta-jarduketa hauek egin dira:

GENERO-BERDINTASUNAREN EUROPAKO INSTITUTUA (EIGE)

2023an, EIGEek Emakunderekin lankidetzan jardun zuen, eta entitate eta adituen erreferentziak eman zituen Gasteizen egin zen «Berdintasun fisikoan aurrera egiten jarraitzeko lege berri bat» izeneko jardunaldirako.

EUROPAKO ITSAS ETA ARRANTZA ESKUALDEEN KONTSEILUA

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzaren laguntzarekin, Europako Itsas eta Arrantza Eskualdeen Kontseiluko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko lantaldea gidatzen jarraitu da, bai eta genero-taldeko kideek onetsitako lan-plana abian jartzen ere. 2023an, Emakundek mintegi honetan parte hartu zuen: «Regions at the forefront of a Union of Equality: How can regions contribute to the fight against gender-based violence in Europe and its Neighbourhood?».

BERDINTASUNEN ORGANISMOEN EUROPAKO SAREA (EQUINET)

2023ko ekainean, Emakundek Equineteko ordezkariak izan zituen azterketa-bisita batean, EAEko politika publikoetan genero-ikuspegia integratzeko eta transbertsalitatea lortzeko jardunbide egokiak eta tresnak xehetasunez ezagutzeko.



3.3. Nazioarteko lankidetzaz

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, honako jardura hauek egin dira, adierazita dauden eragileekin:

NBE EMAKUMEAK: EAren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin lankidetzan, NBE EMAKUMEAK elkarrekin lankidetzan jarraitu da Global Generation Equality-GEF Kanpainaren esparruan, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen aurkako Indarkeriarik Gabeko Bizitzaren aldeko 2022-2026 Herri Itunaren bidez. Itun hori da EAren konpromiso nagusia Generation Equality ekimen globalaren esparruan, gure herrialdean berdintasunaren lorpena bizkortzeko, eta ahalik eta eragile gehien inplikazioa bilatzen du horretarako. Kolaborazioen artean, nabarmenezkoa da GEFen Genero Berdintasunerako Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Ekintza Koalizioko buru tematikoak parte hartu zuela Emakunde 2023ko urrian Donostian egin zuen Berdintasunari, Zientziari eta Teknologiari buruzko Nazioarteko Kongresuan.

CSW67ren esparruan, 2023ko martxoan, Emakunde NBE Emakumeak erakundeko HQ dibisioetako arduradunekin elkartu zen, Emakunde lantzen dituen ekimenak aurkezteko eta emakumeen aurkako indarkerian eta gizonen berdintasun-agendan parte hartzeko ager daitezkeen aukerak aztertzeko. CSW67ari dagokionez, Emakunde ekimen horretako agenda ofizialean bildutako ekitaldi paralelo bat egin zuen: «Ikerketa eta berrikuntzako genero-arrakala ixtea: jardunbide egokiak eta erronka komunak» izeneko webinarra, alegia.

Bestalde, aholkularitza tekniko eman da NBE Emakumeak gidaturiko proiektu hauetan, zeinak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (eLankidetzaz) finantzatzen baititu:

- «Emakumeak, parte-hartze politikoa eta boterea. El Salvadorreko udal-eremuan berdintasun substantiborako ibilbide bat eraikiz».
- AKUAL - Euskadiren eta Erdialdeko Amerikaren arteko erakunde arteko lankidetzaz programa uraren eta saneamenduaren arloan.

- DARE TO CARE, Afrika iparraldeko eskualdean eta Ekialde Ertainean zaintzaren bidez gizonak eta haurrak berdintasunean inplikatzea bideratuta.

UNFPA: indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globalean parte hartzen jarraitu da, finantzaketa emanez. Programaren garapenera laguntzeko, dirulaguntza izendun bat eman zaio Nazio Batuen Biztanleria Funtzari (UNFPA); izan ere, funts horrek bideratzen du proiektua, NBE Emakumeak erakundearekin batera.

WE DECIDE programa finantzatzen eta bertan parte hartzen ere jarraitu da, dirulaguntza izenduna emanez. Programa horrek desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen giza eskubideak eta gizarteratzea sustatzen ditu. Hauek dira programaren erdiguneko gaiak: sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea, desgaitasuna duten pertsonen



Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW67) 67. bilkura-aldia.



informazioa eta hezkuntza, besteak beste, sexu- eta genero-indarkeria prebenitzeko eta jorrazteko.

NBGP: gainera, Nazio Batuek Latinoamerika eta Kariberako Garapenerako duten Programaren Genero Atalarekin batera lan egin dugu, Tokiko Garapen Ekonomikoan genero-ikuspegia txertatzeko estrategian (DELGEN- *Desarrollo Económico Local y Género*).

EAE-REN KANPO-ORDEZKARITZAK:

- Aldebiko lan-agendak garatu dira **Argentina-Mercosurreko ordezkariarekin**. Horretarako, Euskal Etxeak berdintasunaren arloan prestatzeko bigarren edizioan parte hartu dute Euskal Etxeek, eta Uruguaiako Emakumeen Institutuarekin hainbat bilera egin dituzte Virginia Woolf Basqueskola proiektua ezagutarazteko.
- **Txileko, Peruko eta Kolonbiako ordezkariarekin**, Emakundek sinatutako bi lankidetzamemorandumak garatzen jarraitu da, hurrenez hurren, Familien Fundazioarekin, Txileko Presidentetzako Fundazioen Sarearekin, eta Txileko Gobernuako Emakumearen eta Genero Berdintasunaren Ministerioarekin.
- **Mexikoko Ordezkaritzarekin**, lanean jarraitu da emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko Mexikoko gobernuaren Batzorde Nazionalarekin Lankidetzamemoranduma garatzeko, baita Mexikoko Estatuko Gobernuaren gobernazioarekin ere (EDOMEX).



Emakumeen Mugaz Gaindiko Topaketa Cordoban Argentina.





4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA



Emakumeek politika publikoen diseinuan parte hartzeko beharra oso onartuta eta jasota dago bai emakumeen eta gizonen berdintasunerako legean, bai berdintasunerako planetan. Horregatik guztiagatik, Emakunderen lehenetazko lan-ildo estrategikoetako bat emakumeen sare asoziatibo eta feminista sustatzea eta indartzea da, elkarrizketetan emakumeen parte-hartzea eta eragina sustatzeko, berdintasun-politikak nahiz bestelako politika publikoak diseinatzeko orduan.



Aholku Batzordearen bilera.

4.1. Emakunderen Aholku Batzordea

Aholku Batzordea emakumeen elkarteek parte hartzeko eta elkarrizketarako duten organoa da. 1993an hasi zen esperientzia pilotu gisa, eta 1998ko ekainaren 9an arautu zen. Ibilbide luzea izan du eta hainbat mugarri historikotan parte hartu du, EAEko berdintasun-politiken garapenean eragiteko.

Gizartean, emakumeen mugimendu asoziatibo edo feministetan eta, oro har, emakumeen parte-hartze soziopolitikoan gertatu diren bilakaerak eta aldaketek Aholku Batzordearen lana egokitzea eragin dute.

Batzordearen lan-esparruan, ahalegin berezia egiten da askotariko diskriminazioak pairatzen dituzten emakumeen kolektiboen elkarteekin lan egiteko (hala nola emakume alargunak, landa-eremuko emakumeak, emakume ijitoak edo emakume migratzaileak).

KOORDINAZIO-ESPAZIOAK:

2023an, hainbat lan- eta koordinazio-saio egin dira lehendik ere abian diren espazioetan:

- **OSOKO BILKURA:** bi bilera egin dira. Bata ezohikoa, lurralde arteko bilkurak efemeride feministen proposamenari buruz egindako proposamena berresteko, eta, bestea, ohikoa, osoko bilkura honetan urtero lantzen diren ohiko gaiak jorratzeko.
- **LURRALDE ARTEKO BATZORDEA:** lurralde arteko ohiko 6 bilera egin dira 2023an, bi hilean behin, eta ezohiko bat edo beste, erakundearen eskaeren arabera. Koordinazio- eta adostasun-gune horretako lankidetzaren areagotu da, proposamenak aztertzeko eta egiteko, eta berdintasun-politikei buruzko jarrera informatuak adosteko. Hala, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030erako Estrategiarako proposamenak elkarrekin egiten parte



hartu da; gogoeta- eta proposamen-prozesu bat egin da lan-egutegian egun feminista bat sortzeko (efemeride feminista); zainketa-politikei ekarpenak egin zaizkie zaintzaren aldeko itunaren bidez, eta Batzordearen 25. urteurrena ospatzeko prestakuntza-bilerak egin dira.

- **LURRALDEKO AHOLKU AZPIBATZORDEAK:** gutxienez hilean bilera bat egin da lurralde bakoitzean. Aholku azpibatzorde bakoitzean, partaidetza sendotzeko ekimenekin jarraitu da, partaidetza areagotu da eta emakumeen elkarte-mugimenduen egoera eztabaidatzeko eta aztertzeko lurralde-batzarrak bultzatu dira.

ELKARRIZKETARAKO BESTE GUNE INSTITUZIONAL BATZUK:

2023an, Aholku Batzordeak izendatutako ordezkariak parte hartzen duten gainerako foro instituzionalek antolaturiko bileretan parte hartu dute, haietan eragina izateko:

- Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluaren bi bilkuratan parte hartu da.
- Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren epaimahaiaren bileran parte hartu da,
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren hiru saiotan parte hartu da.
- Begira Batzordearen bilkura batean parte hartu da.

PLANGINTZA ETA KOMUNIKAZIOA:

Partaidetza-prozesu baten bidez eta idazkaritza tekniko baten laguntzarekin, 2023rako lan-plana egin da, eta lehentasunezko lan-ildoak identifikatu dira.

Zenbait jardura definitu dira barne-koordinazioa hobetzeko, bai eta Aholku Batzordeak egiten duen lanaren berri emateko ere. Horretarako, komunikazio-tresna eta -euskarri berriak sortu dira edo lehendik daudenak berrikusi/eguneratu dira, batzordeak interes-taldeekin hitz egin dezan errazteko.

25. URTEURRENEKO OSPAKIZUNA:

Aholku Batzordeak 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi bat egin du 2023ko azaroaren 13an, eta elkarrizketa soziopolitikorako erreferentziazko gune gisa parte hartu du. Horretarako, aintzatespen-, gogoeta- eta ospakizun-jardunaldi bat antolatu du Gasteizen. Guztira 162 pertsona bertaratu ziren, 160 emakume eta 20 gizon. Guztira 67 entitatek parte hartu zuten, hala nola emakumeen elkarteak, erakunde publikoak edota erakundeon ordezkariak.



Aholku Batzordearen 25. urteurrena.



4.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak

Erakundeen proiektuak edo jarduerak antolatzeko laguntza ekonomikoa ematen jarraitu da, emakumeen irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazioei, eta emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzen laguntzea helburu eta jardun-eremu bakarra duten emakumeen fundazioei zuzendutako dirulaguntzen urteko deialdiaren bidez. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan.

2023ko deialdian, eskaera aurkeztu zuten 112 elkarteetatik 102 izan dira onuradunak⁹ (129 proiektu guztira). Guztira, 119 proiektu lagundu dira diruz, eta 400.000 euro erabili dira horretarako.

2023an, dirulaguntzen lerro horren diagnostikoa egin da. Haren helburu nagusia izan da dirulaguntza-programa hori aztertzea, proposamena egiteko preskripzio teknikoan agirian eta ebaluazio-irizpideetan oinarrituta (egokitasuna, eraginkortasuna, efizientzia, estaldura eta inpaktua), eta, hala, indarguneak, ahuleziak eta hobekuntza-arlo posibleak identifikatzea, guztia ere haren optimizazioa, egokitasuna eta eraginkortasuna lortzen laguntzeko.

4.3. Elkarteekin egindako proiektuak eta lankidetzako ildoak

EMAKUMEEN ELKARTEEN GIDA: EAEko Emakumeen Elkarten Gidan sartu behar diren eguneratzeak identifikatzen jarraitu da, batetik, elkartei beraiei direktorio bat emateko eta, bestetik, emakumeen elkarten jarduketa-esparruak herritar guztiei edo interesa duten organismoiei ezagutarazteko.

ELKARTEEKIKO LANKIDETZA: EAEko beste elkarte batzuekin lankidetzan jarraitu dugu, eta diruz lagundu ditugu hainbat eremu sozial eta kulturaletan emakumeen eta feminismoaren bultzada, parte-hartzea eta ekarpena sustatzera eta aitortzera bideratutako proiektuak. Hona hemen nabarmendu behar diren proiektu batzuk:

Maite Albiz, Emakumeen Dokumentazio Zentroa	Babes ekonomikoa emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)	Berdintasun-teknikariak kontratatuzeko laguntza ekonomikoa, genero-ikuspegia Kontseiluaren jardura guztien funtzionamenduan eta lanketa osoan txertatzen bultzatzeko eta aholkuak emateko.
Bertsozale Elkarte	Laguntza ekonomikoa emakume bertsolarien partaidetza eta ahalduntzea sustatzeko, prestakuntza-jardueren bidez, eta bertsolaritzan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatu da.
ARGIRI, emakumeen elkarte	Laguntza ekonomikoa Irungo herriko jaietan ospatzen den alardea —diskriminatzailea ez dena— antolatzeko, zeinean emakumeek parte har baitezakete soldadu gisa.
Irungo Alardea	Irungo alardeari buruzko aldizkaria egiteko laguntza ekonomikoa.
Atlético San Sebastián	Lankidetzako ekonomikoa LILATOIA emakumeen herri-lasterketarekin, kirolaren bidez emakumeak* ahalduntzeko, guztia ere osasuna, inklusioa eta talde-lana sustatuz eta feminismoaren aurrerapena ospatzeko.
Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia	Laguntza ekonomikoa Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GGKEak antolatutako «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia egiteko eta, zehazki, Emakume Errealizadore Onenaren sarirako.
Komunikazio Biziagoa, S.A.L.	Lankidetzako ekonomikoa Argia sariarekin, emakume kazetariak eta genero-ikuspegiarekin lan egiten duten profesional eta komunikabideei aintzatespena egiteko.
AED - Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarte.	AED XII. Enpresa Saria babestea, emakume enpresaburu eta zuzendarien lana eta ibilbidea aintzatezteko.



Zinemakumeak gara Elkartea	Lankidetzta ekonomikoa Zinemakumeak gara! elkartearekin. Emakumeek zuzendutako zinema-erakusketa.
BAFFEST	Lankidetzta ekonomikoa Barakaldon ospatutako BAFFEST Emakumezko Argazkilarien Jaialdiarekin.
Mundo Libre y Solidario (MULISOL) gobernuz kanpoko erakundea	Lankidetzta ekonomikoa «Independentzia ekonomikoa, funtsezko elementua emakumearen emantzipaziorako eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokarako» Emakume migratu afro-beltza Euskadin VIII. Jardunaldietan.
Eusko Ikaskuntza	Lankidetzta ekonomikoa Bilbon eginiko «Kultura-kudeaketa ekoizpen-zentroetan: feministen jarduteko moduen arrastoak» sinposioarekin.
La Tentación Producciones, S.L.	<i>EREA Emakumeen zinema dokumentala babestea.</i>
Bizkaiko Psikologia Elkargoa	Lankidetzta ekonomikoa «Sexu Indarkeriak Ulertzea eta Artatzea» leloarekin eginiko Genero Indarkeriaren aurkako Psikologiari buruzko XIV. Estatuko Jardunaldietan.
Euskal Herriko Zuzenbide Historikoa eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa (FEDHAV)	Lankidetzta ekonomikoa Euskal Herriko zuzenbide historikoan emakumearen izaera juridiko-pribatua aztertze XXI. sinposioan.
Sabino Arana Fundazioa	EMAKUME ABERTZALE BATZA mugimenduaren ibilbideari buruzko liburu bat argitaratzeko babesa, sortu zenetik 100 urte bete direnean.
Euskal PEN Kluba	Lankidetzta ekonomikoa euskal emakume idazleen liburuen azalekin kartel bat egiteko.
EnpresariaK	Laguntza ekonomikoa Euskadiko Emakume Enpresaburu, Zuzendari eta Profesionalen Federazioari.

Patronato Europeo del Mayor y de la Solidaridad Intergeneracional Fundazioak aurkeztutako proiektu hau babesten laguntzen du Emakundek: «(Des)Conocidas. Los retos de las mujeres que son mayores», Gizarte Gaietako Ministerioaren interes orokor eta sozialeko jardueretarako eta 2023ko Agenda 2030erako dirulaguntzen deialdiari eransteko.



Zinema ikusezinenaren Jaialdiaren inaugurazioa.



Genero Indarkeriaren aurkako Psikologiari buruzko Estatuko XIV. Jardunaldiak. Bilbo.





5. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA



Gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu batera eraldatzeko bidean, herritar guztiak dira Emakunderen lan-ildo garrantzitsuen hartzaile nagusiak.

Berdintasunaren helburua lortzeko, hain errotuta ditugun emakumeen eta gizonen jokabide-eredu soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu egin behar dira, eta genero-rolen esleipen soziala murriztuko duten beste batzuekin ordezkatu; zaintza-lanen behar soziala, erantzukizun partekatua eta balio sozioekonomikoa aintzatesteko, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotzeko, eta bi sexuei balio eta prestigio berdina emateko.

Ildo horretan, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen, haurren eta, oro har, gizarte osoaren sentsibilizazioa lantzea, baita gako diren eragile sozialena eta eragina duten beste antolakunde batzuen ere. Helburua lortze aldera, Emakundek hainbat proiektu, programa eta kanpaina sozial bultzatzen ditu.



Berdintasunaren aldeko Herri Ituna.

5.1. Berdintasunaren aldeko Herri Ituna

2022ko ekainaren 15ean, Iñigo Urkullu lehendakariak jendaurrean aurkeztu zuen *Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzarik gabeko Herri Ituna, Berdintasun*, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Emakunderen bitartez sustatua.

Itunaren helburua da EAEko gizarte osoa inplikatzea berdintasuna lortzeko, eta NBE Emakumeak erakundearen Generation Equality ekimen globalaren esparruan garatutako belaunaldiarteko lan-prozesu baten emaitza da, munduan berdintasunaren lorpena bizkortzera bideraturik. Emakundek EAEko errealitatera egokitu du ekimen hori, eta herrialdeko hainbat eragile sozial, politiko eta ekonomikotako 450 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute prozesuan (toki-entitateak, enpresak, ikastetxe eta unibertsitateak, kirol-entitateak, hirugarren sektoreko elkarteak, alderdi politikoak eta sindikatuak...).

Eragile horiek prozesuan hartutako konpromisoetatik sortu da Ituna, zeinak hamar konpromiso baitaizka eremu hauekin lotuta: justizia ekonomikoa, emakumeen eta nesken ahalduntzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista, haurtzarora eta nerabezarora, zaintzak, gizonen inplikazioa, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, emakumeen mugimenduak eta lidergo feministak, eta gobernu ona. Itunaren bidez, EAEk berdintasunaren aldeko agenda globalari laguntzen dio eta, aldi berean, bat egiten du berdintasunaren aldeko nazioarteko koalizio indartsu eta iraunkor batekin. Koalizio hori 2021ean eratu zen Nazio Batuetan, NBE Emakumeak erakundearen gidaritzapean, eta 2026ra arte jarraituko du.

2023an zehar, batez ere itunaren bi eremu landu dira:





“Posible al da adimen artifizial feminista?” jardunaldia.



“Bitarteko unea” topaketa.

• **Eraldaketa Digitalarena (8. eremua).** Horren inguruko 2 ekitaldi egin dira:

1. CSW67 egitasmoaren esparruko ekitaldia: «Ikerketan eta berrikuntzan genero-aldea murriztuz: jardunbide egokiak eta erronka komunak».
2. «Posible da adimen artifizial feminista bat?» jardunaldia, podcast formatuan, zuzenean.
3. Nazioarteko Kongresua: BERDINTASUNA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA. PARADIGMA ALDAKETA BATEN ALDE, zeina Donostian egin baitzen urrian.

• **Emakumeen eta nesken ahalduzaren (2. eremua),** martxoaren 8ko kanpainaren bidez.

Era berean, urrian Ituneko erakundeen tarteko bilera egin zen.

5.2. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetza-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan eskola-egutegiaren arabera lan egiten da, bi ikasturtetan.

Deialdia Hezkuntza Sailarekin batera egiten da, esparru gisa harturik EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onerako bidean. 2021/2023 edizioan 54 ikastetxek parte hartu dute, eta horiei laguntza eta gaikuntza eman zaie (1.737 neska eta 1.952 mutil).

2023an, Emakundek kudeatutako programaren azken edizioa izanik, maiatzean amaitu zen programa, eta jarduera hauek egin dira:



ONLINE HITZALDIAK: 3 hitzaldi eta 18 mintegi egin dira online, 2023an programak bi seihileko baino ez baititu izan maiatzean edizioa amaitu denean:

DATA	HIZLARIA ETA IZENBURUA	IZEN-EMATEAK
2023/01/18	IRIA MARAÑON «Hezkidetzak: neskak ahalduz eta haurrak berdintasunerako hezteak».	106 emakume 6 gizon
2023/02/08	ZURIÑE BURGOA «Eskolen espazioen diagnostikoak eta moldaketa praktikoak Berdintasunaren ikuspegitik».	56 emakume 21 gizon
2023/03/14	CARMEN DIAZ MINTEGUI «Kirol-egitura eta eskola-kirola: hezkidetzan duen artikulazioa eta eragina».	59 emakume 8 gizon

HIRUHILEKOKO MINTEGIAK: hiruhilekoko 18 mintegi egin dira. Mintegiotan berriazko prestakuntza eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi dira, digitalizatutako material berriak nola erabili azaldu da, eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu da. Mintegietan 60 emakumezko irakaslek eta 9 gizonzko irakaslek hartu dute parte guztira.

BABESA ETA JARRAIPENA: banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.

MATERIALEN DIGITALIZAZIOA: programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta horretarako erabilera edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.

5.3. Gizonduz ekimena

2007an sortutako Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea da gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezkeen sustatzea. Honako helburu hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek pairatzen duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonak erantzukizun partekatu handiagoa izatea etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan.

2023an honako jarduketak hauek burutu dira¹⁰:


SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMA. 2009. urtean jarri zen martxan programa hori, eta 31.732 pertsona igaro dira bertatik (18.735 gizonetzko, 12.704 emakumezko, 154 ez-bitar eta erantzun ez duten 139 pertsona). Ikastaro multzo bat da: aurrez aurreko ikastaroak eta Internet bidez egitekoak; doakoak dira, eskaintza zabala eta askotarikoa dute, eta moldagarriak eta malguak dira. Horietan emakumeek ere parte har dezaketen arren, bereziki gizonen zuzendutako ikastaroak dira, banaka edo taldeka, baldin eta interes pertsonal edo profesionalekin emakumeen eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen ezagutzeko prestakuntza jaso edo sakondu nahi badute. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, zahartzea, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen kontrako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa, klima-aldaketa...

2023an, 174 ikastaro eman ziren guztira, eta 3.807 pertsonak hartu zuen parte haietan: horietatik 2.304 gizonak (% 60,52), 1.487 emakumeak (% 39,05), 5 ez-bitarrak (% 0,13), eta 11k (% 0,29) ez zioten erantzun galdera horri. Gainera, ikastaro horietako batzuk Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuan, Euskal Herriko Polizia eta Larrialdietako Ikastegiaren eta UPV/EHUn prestakuntza-eskaintzan sartu dira.

«GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta institutueta (DBH3, DBH4 eta Batxilergoa), Lanbide Heziketako ikastetxeetako (ahal dela, Oinarritzko Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako lehen maila) eta arautu gabeko beste irakaskuntza-zentro batzuetako nerabeei eta gazteei zuzendutako proiektua da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko helburuarekin.

Proiektua artikulatzeko, komiki interaktibo bat erabiltzen da. Komiki horrek sei egoera irudikatzen ditu sei binetatan, eta bertako pertsonaien jarrerak sexismoari, homofobiari, indarkeriari, tratu onei, arrisku-jarrerari eta abarrei buruz hausnartzeko aukera ematen digute. Komikiaren eszena bakoitza inkesta batekin amaitzen da, gai bakoitzari dagozkion unitate didaktikoak lantzeko abiapuntu gisa balio duena.

2016tik 2023ra bitartean, 51 ikastegitan garatu da proiektua, eta parte hartu dute 1.677 neska eta 3.240 mutilek, ez-bitar gisa identifikatzen diren 37 pertsona, eta galdera horri erantzuten ez dioten 15 lagunek (4.962 guztira).



Gizonduzen Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programa.



2023an, 393 neskek eta 661 mutilek hartu dute parte, ez-bitar gisa identifikatzen diren 5 pertsona, eta galdera horri erantzuten ez dioten 8k. Orotara, 214 prestakuntza-ordu eman dira, 14 ikastetxetako 60 taldetan banaturik.

IKASTETXEAK	UDALERRIA
AZKUE IKASTOLA	Lekeitio (Bizkaia)
BERRIO-OTXOA INSTITUTUA	Bilbo (Bizkaia)
CALASANZ	Santurtzi (Bizkaia)
CIFP DON BOSCO LHII	Erreneria (Gipuzkoa)
CIFP DON BOSCO LHII	Tolosa (Gipuzkoa)
EAGI ERAIKUNTZA ESKOLA	Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
EASO POLITEKNIKOA	Donostia (Gipuzkoa)
FRAISORO ESKOLA	Zizurkil (Gipuzkoa)
ADSI FUNDAZIOA	Vitoria-Gasteiz (Araba)
IES BIZARAIN BHI	Erreneria (Gipuzkoa)
IES KANTAUARI BHI	Santurtzi (Bizkaia)
IES OÑATI BHI	Oñati (Gipuzkoa)
IMH Fabrikazioaren Zentro Aurreratua	Elgoibar (Gipuzkoa)
UNI EIBAR-ERMUA	Eibar (Gipuzkoa)

GIZONEZKO POLITIKARIEKIN EGINDAKO LANA. 2017an, kargu politikoak dituzten gizonei zuzendutako ekimena jarri zen martxan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortzeko eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko. Horretarako, bi gizonezko politikarien talde sortu ziren, bata Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bestea udal-mailan. Prestakuntza, gogoeta eta trukerako espazioak

ziren, eta politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea zuten helburu, gizon horiek erreferenteak baitira eta erabakiguneetan parte hartzen baitute.

Ekimenari jarraipena emateko, 2021. urtearen hasieran bigarren fasea hasi zen, gizonezko kargudun politikoei zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro batean oinarrituta. Gida hori osatzeko, 5 lan-saio egin ziren (2 Jaurlaritzako politikariek, 2 tokiko politikariek eta saio bat elkarrekin), eta, guztira, 25 gizon inguruk parte hartu zuten. Gainera, 2021ean, bi prestakuntza-ildo jarri ziren abian, administrazio autonomikoetan, foru- eta toki-administrazioetan, Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, solasaldiak egin ziren berdintasunean adituak diren pertsonekin eta, bestetik, «prestakuntza-topaketak»; hau da, aldizkako online saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan.

2023an, Emakundek antolatutako Berdintasuna, Zientzia eta Teknologia, paradigma aldaketa baten alde kongresuaren esparruan, urriaren 24an online topaketa bat egin zen gai honi buruz: «Las actitudes y violencias machistas en Internet (manosfera) y el papel de los hombres a favor de la igualdad en ese tipo de espacios», maskulinitateetan eta esparru digitalean aditua den Alan Greigekin. Alderdi politiko hauetako 38 politikariek parte hartu zuten, guztira: EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU.

Azpinarratzekoa da politikariek egindako lana jardunbide egokitzat jo dela Promundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance erakundeekin eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako State of the World's fathers 2021 txostenean.



PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN ZABALKUNDEA: gizonak berdintasunari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzera bultzatzeko, unibertsitateko master eta graduondokoen eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren ikastaro espezifikoaren publikitatea egin da, Gizonduz webgunearen eta sare sozialen bidez.

BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONEN ARLOAN ESPEZIALIZATUTAKO WEBGUNEAREN ADMINISTRAZIOA: Gizonduz webguneak ekimenari buruzko informazio zabala jasotzen du zenbait euskarritan, baita elkarrizketak (2023an 2 elkarrizketa egin zaizkie Javier Lopexi eta Miguel Ángel Arconadari), dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako estekak eta abar ere. 2022an, Gizonduzen hasierako orriak 5.436 bisita izan ditu guztira, horietatik 4.778 gaztelaniaz eta 658 euskaraz.

SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA: Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldi berean behin eguneratu egin dira. Nabarmenezkoa da 2023an 5.218 jarraitzaile zenbatu direla (% 58,4 gizonak) Facebooken, 2.254 X sare sozialean (lehenago Twitter), 319 Instagramen. Era berean, YouTube 82 bideo izan dira, zeinak 2.015 aldiz erreproduzitu baitira guztira.

AHOLKULARITZA: kontsulta guztiei erantzun zaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, Gizonduz ekimenarekin loturik.

Gainera, aholkularitza tekniko eman da, gizonak eta haurrak zaintzaren bidez berdintasunean inplikatzera bideratutako nazioarteko Dare to Care proiektuaren esparruan. Proiektu horrek NBE Emakumeak du buru, eta Lankidetzaren Euskal Agentziak (eLankidetz) finantzatu du.

SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERETAKO PARTE-HARTZEA: Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste entitate batzuek antolatutako

sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueran parte hartu dugu. Honako hauetan, adibidez:

ENTITATEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
OSALAN	Ekainaren 16an, «Hombres, igualdad, riesgos y seguridad laboral» txostenarekin parte hartu zen, «Laneko arriskuen prebentzioaren esparru juridiko eta teknikoaren eguneratzea» izeneko EHUko udako ikastaroan.
Azkoitiko Udala	Maiatzaren 30ean, «Maskulinitateak, Erantzunkidetasuna eta zaintza-lanak» hitzaldian parte hartu zen Azkoitian.
Calatayudeko espetxea	Martxoaren 10ean, espetxe-ikasgeletako irakasleen mintegi autonomikoan parte hartu zen, «Trabajar con los hombres, las masculinidades, la igualdad, el buen trato y contra la violencia machista» txostenarekin.
Sorginlore, beste 13 ekimen, elkarte eta entitaterekin batera	Uztailaren 26an, «Gizonek zer?» mahai-inguruan parte hartu zen, Hezkidetzaren eta Pedagogia Feministen II. Kongresuaren barnean, Donostian.
Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala	Irailaren 14an, UPV/EHUn «Salud Mental con perspectiva de género. Trabajando masculinidades» udako ikastaroaren barruan, «Contextualización del trabajo psicoterapéutico con masculinidades desde una perspectiva de género» mahai-inguruan parte hartu da.
IAMI Perú Alianza Interorganizacional por Masculinidades Igualitarias	Ekainaren 25ean, Peruko Piura eskualdean antolatutako «II Encuentro Nacional de Organizaciones Sociales por Masculinidades Igualitarias y Diversas» topaketetan, nazioarteko esperientzien inguruko online mahai-inguruan parte hartu zen.
ADOS Batzordea, EAEko meskitetan diharduten imantentzat.	Irailaren 30ean, «Gizon-emakumeen arteko berdintasunaren balioak Euskadin izan duen bilakaera» modulua eman zen. Lege-testuingurua eta gizarte-ardura. «Genero-indarkeriaren errealitatea munduan eta Euskadin», EAEko errealitatera hurbiltzeko ikastaroaren esparruan.




ENTITATEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Piurako (Peru) Eskualde Gobernua, Masculinidades por la Igualdad Piura, CISTAC Cuerpo y Territorio Perú	Urriaren 20an, Peruko Piura eskualdean antolatutako I. Nazioarteko Topaketetan «Hombres y políticas públicas: compromisos con la igualdad» parte hartu zen, online.
Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea	Irakaskuntzan jardun da maskulinitate, genero eta berdintasunaren arloko unibertsitate-espezialistaren graduondoko titulu propioaren 3. edizioan, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatean.
Euskal Herriko Unibertsitatea eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.	Eskolak eman dira Generoari, Maskulinitatei eta Gizarte Ekintzari buruzko espezializazioko unibertsitatearteko tituluaren bigarren edizioan.



Berdintasunezko eta Askotariko Maskulinitateen aldeko Gizarte Erakunde II. Topaketa Nazionala Piuran (Peru).



EHUko udako ikastaroa: “Osasun mentala genero-ikuspegiarekin; maskulinitateak lantzen”.



Gizonduz. “Gizonak eta politika publikoak: berdintasunarekiko konpromisoak” I. Nazioarteko Topaketa.



5.4. Martxoaren 8ko kanpaina

Martxoaren 8ko kanpainak, 2023ko Emakumeen Nazioarteko Egunean, «Emakumeak gora!» leloa izan zuen, eta mahai gainean jarri zituen emakumeei oraindik ere lidergo-postuetara berdintasunez iristea eragozten dieten oztopo nagusiak; ildo horretan, mito faltsuak auzitan jarri zituen, hala nola emakumeak ez daudela hain prestatuta postu horiek betetzeko. Horretarako, jakinarazi zuen EAEn goi-mailako ikasketak dituzten pertsona guztien artean, emakumeak direla ia % 60.

Emakumeak izan ziren kanpainaren protagonista, eta gogorarazi zen emakumeok gerentzia-postuen % 6 baino ez dugula betetzen, baina hori ez dela prestakuntza edo lidergo faltagatik. Antolakundeetan gizonen pribilegioak eta rola betikitzen direlako, baizik. Emakumeok titulazio teknikoetan matrikulen % 23 baino ez izatea ez da bokazio faltagatik. Baizik eta, besteak beste, mugatzen gaituzten estereotipoetan oinarritutako hezkuntzaren emaitza. Zaintzagatiko eszedentzien % 73



Martxoaren 8ko kanpainaren aurkezpena.



Martxoaren 8ko kanpainako kartelak.

emakumeok hartzea ez da guk bakarrik dakigulako zaintzen. Horren arrazoia da gizarteak esleitzen digula gure garapen profesionala mugatzen duen rol hori.

Kanpainak kartelak, irratirako oharrak, bannerrak, webgune espezifiko bat eta iragarki bat erabili zituen kanpoko euskarri, komunikabide eta sare sozialetan, eta otsailaren 24tik martxoaren 9ra iraun zuen. Gainera, kartelak bidali zitzaizkien erakundeei, ikastetxeei, osasun-zentroei, elkartei, enpresei, kultura-zentroei, liburutegiei eta abarrei.

5.5. Azaroaren 25eko kanpaina

EAEko erakunde guztiekin adostutako kanpaina bakar baten bidez, 2023ko azaroaren 25eko kanpainak (Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) pornografia izan zuen ardatz, honako goiburua honekin: «Pornoak emakumeen aurkako indarkeria-eskola bat da».

Kanpainak ohartarazi zuenez: eszena pornografikoen % 88,2k emakumeen aurkako indarkeria fisikoa edo ahozkoa du; pornoarekin izandako lehen kontaktuaren batez besteko adina 12 urtekoa da; nerabeen % 33,4k uste dute pornoak eragin handia duela haien sexu-harremanetan. Teknologiaren aurrerapenak eta Interneten nonahiko presentziak pornografia gure gizartean masiboki hedatzea eragin du, sekula inoiz gertatu ez den moduan, gainera; izan ere, eskaintza izugarria da, doan eta 24 orduz. Arazoa ez da sexua eskura izatea, indarkeria baita. Hala, pornografia indarkeria-eskola bihurtzen ari da, beren harremanetan egin behar dutenari buruzko argibide-liburu moduko bat. Pornografia-eredu hori irudi erotikoko kolektibo bat eraikitzen ari da, zeinean normalizatzen ari baitira emakumeen aurkako jarrera bortitzak; iruditeria horretan, desagertzen ari da beste pertsonarekiko enpatia eta botere-harremanek ordeztu dute. Menderatzen ikasten duten gizonak

**PORNOA
EMAKUMEEN
KONTRAKO
INDARKERIAREN
ESKOLA BAT DA**

Eszena pornografikoen
**%88,2ak emakumeen
aurkako indarkeria fisikoa
edo hitzekoa du.**

Ez dezagun sexu-heziketa
bere eskuetan utzi.

azaroak
25 Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 24h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

EMAKUNDE Euzko Inprimategia Araba Álava Bizkaia EUDL

Azaroaren 25eko kanpainako kartelak.

dira nagusi, eta menpean geratzen eta umiliatuak izaten ikasten duten emakumeak.

Kanpainak ohartarazten duenez, gehien kontsumitzen den pornoaren bidez, indartu egiten da maskulinitasun bortitz eta menderatzailea eta feminitate atsegin eta kosifikatu bat, beti plazer maskulinoaren esanera dagoena. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeak, halaber, gazteek kalitatezko sexu-hezkuntza jasotzea eskatzen du. Kanpaina azaroaren 10etik 25era egin zen telebistan, irratietan, offline eta online hedabideetan eta sare sozialetan. Era berean, kartelak bidali zitzaizkien erakundeetara, ikastetxeei, osasun-zentzoei, elkartei, enpresei, kultura-zentzoei, liburutegiari...



Azaroaren 25eko kanpainaren aurkezpena.

5.6. Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen —publiko nahiz pribatu— jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.

2023an banatu zen 2022ko saria, On Giz Berdintasunaren Aldeko Elkarteari (irabazi-asmorik gabeko elkartea) emana, gizartearen berdintasunaren eta deserakuntza patriarkalaren aldeko sentsibilizazioaren,



2022ko Emakunde Saria emanaldia.



2023ko Emakunde Saria ematea.

kontzientziazioaren eta prestakuntzaren bidez egiten ari diren lanagatik, bai EAEn, bai Espainian eta nazioartean, hautagaitzak berak jasotzen duen bezala.

Bestalde, Emakunde Sariaren epaimahaiak erabaki zuen Mariasun Landa Etxebeste andreari ematea 2023ko Emakunde Saria, idazle, irakasle eta militantzia feministaren ibilbide oparoagatik.

5.7. Emakunde Aldizkaria

Emakunde aldizkarian informazioa eta elkarrizketak argitaratzen jarraitu dugu. Aldizkariko harpidedunek puntualki newsletterra jaso dute haien helbide elektronikoetan. Edukiek, bidenabar, hedapen zabala izaten dute, sare sozialen laguntzari esker. Aldizkariaren helburuetako bat da gure jendarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea, baita berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere.





6. BERDINTASUNA ENPRESETAN



Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetzetik handiena hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta -sustapenerako aukerekin, lan-bizitza, familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak dira enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea, arlo horretan adituak diren aholkularitza-enpresak homologatzea eta gako diren eragileekin sare eta aliantzak sortzea ere.

6.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza

Emakundek aholkularitza ematen die enpresei eta beste antolakunde batzuei berdintasun-legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta giza baliabideei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

901 eta 902 errege-dekretuak¹¹, indarrean jarri ondoren, eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerak gora egin dutela, berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko ez ezik, plan horiek abian jartzeko eta plan horien egokitzapena egin eta Regconen erregistratu ahal izateko ere bai. Zehazki, areagotu egin dira enpresa txikien informazio-eskaerak, errege-dekretuak onetsi ondoren, besteak beste, berdintasun-plan negoziatu bat eduki behar dutelako, soldata-auditoretza barne. Horretaz gainera, esparru horretan arau-garapena areagotzen den heinean, handitu egin da, orobat, sexuan oinarritutako

jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren aurkako berariazko protokoloak aplikatzeari lotutako kontsulta kopurua, baita esparru horretako prestakuntza-eskaeren kopurua ere, bereziki enpresa txikienei dagokienez.

6.2. Dirulaguntzak enpresa eta entitate pribatuentzat

Berriz ere egin da enpresa eta entitate pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-diagnostikoak eta -planak prestatzeko laguntza kontratatzeko. Dirulaguntza 48 enpresei eman zaie¹²; guztira 229.326,69 €.

Jarduera-eremuari dagokionez, aipatu behar da 40 entitate zerbitzuen sektorekoak direla, eta beste zortzi, berriz, industria-sektorekoak. Guztira, zifrei dagokienez, baliteke 1292 emakumerentzat eta 1146 gizonentzat izatea onuragarriak entitate horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

6.3. Berdintasunerako lankidetzaren entitateak aitortzea

Gizarte- eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, eta entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko, lankidetzaren entitatearen figura sortu eta arautu zen¹³.

2023an, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren entitatearen aitortzea eman zaie jarraian adierazitako 15 entitateei:

11. Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua moldatzen duena; eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

12. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 3. eranskina.

13. Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak arautua.



AITORTUTAKO ENTITATEAK 2023	
1.	INDUSTRIAS TECNICAS DE LA ESPUMA SL
2.	Asociación BC3 Basque Centre for Climate Change - Klima Aldaketa Ikergai
3.	Asociación Unión Federaciones Deportivas Vascas, S.L. - Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB/UFDV)
4.	IZANGAI ELKARTEA (Gizarte-bazterkerian dauden kolektiboak zaintzeko eta sustatzeko elkarteal)
5.	GAUTENA (Gipuzkoako Autismo Elkarte- Asociación Guipuzcoana de Autismo)
6.	GIZARTE-EKIMENENKO AURRERANTZ S. KOOP.
7.	JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS, S.L.
8.	Agencia de desarrollo del Bidasoa-Bidasoako garapen agentzia S.A.
9.	FONDO FORMACIÓN FUNDAZIOA
10.	URRATS EUSKALTEGIA S. KOOP.
11.	GOITU ERAIKUNTZAK S.L.
12.	LA PAU SCC.
13.	NEIKER-NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, S.A.
14.	AVANZA DURANGALDEA, S.A.
15.	ULMA PACKAGING

2023ko abenduaren 31n, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren entitate gisa aitortutako 150 entitate daude.

6.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-enpresei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresei eta entitateei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioaren deialdiari buruz.

Aurten 5 enpresak egin dute eskaera eta 4 enpresa homologatu dira.

HOMOLOGATUTAKO AHOALKULARITZA-ENPRESAK 2023	
1.	Sorginlore Gizarte Elkarte
2.	In group we add talent, S.L.
3.	Miriam Alonso de Leciñana Mediavilla
4.	Elena Ortiz de Lejarazu

Bestalde, homologatutako aholkularitza-enpresen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen betekizunak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

2023ko abenduaren 31n, Emakundek 38 aholkularitza-enpresa homologatu ditu, enpresei berdintasun-diagnostiko eta -planak egiten laguntzeko.



6.5. BAI SAREA, berdintasunerako lankidetzaren Sarea

BAI SAREA Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak sustatutako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren Sarea osatutako sare bat da, 2018ko martxoaren 19an eratu zena formalki, Emakundek eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren Sarea askok bi urtez lanean jardun ondoren.

Gaur egun, Emakundek eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako 79 lankidetzaren Sarea¹⁴ osatzen dute. Entitate horiek, konpromiso-eredua sinatuz, borondatez konpromisoa hartu dute emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta NBE Emakumeak erakundeak ahalduzeari dagokionez ezarritako printzipioak aplikatzeko, betiere EAEko errealitateara egokituta.

BAI Sareak helburu hauek ditu: esperientziak, praktikak, ikaskuntzak, ideiak, metodologiak eta abar partekatzea; eta enpresen zein gizartearen errealitatea eraldatzea zein hartarako tresnak sortzea, lan-esparruan genero-arrakalak murrizteko, eta berdintasuna eta justizia soziala erakundeen balio estrategiko gisa bultzatzeko.

Eratu zenetik, hamar batzar egin dira. 2023ko batzarrean (azaroa), espazio jasangarrien, espazio seguruen eta gune intersektionalen alorreko taldeen produktuak aurkeztu ziren, eta Bai Saria eman zitzaien hiru jardunbide onenei (Laboral Kutxa, Avanza Mobility eta Bizitzen). Guztira 41 ekintza egin dira, horien artean 33 lan-saio BS taldeekin eta topaketa bat talde guztien artean. Gainera, 10 tresna garatu dira, hala nola Bs Vademecum, LAP: seinale moreak, puntu kritikoen mapa, lidergo feministaren istorioak, intersektionalitatearen hitz gurutzatua, intersektionalitatearen zirkulua, praktiken biltegia, martxoaren 8rako sentsibilizaziorako 6 kartel, 3 infografia eta podcast bat...; horien artean, 7 prestakuntza-saio hauek nabarmentzen dira:

DATA	HIZLARIA ETA IZENBURUA
2023/04/27	Maria Medina-Vincent, Lidergo feminista I (talde eragilea eta espazio jasangarrien taldea).
2023/07/11	Maria Medina-Vincent, Lidergo feminista II (talde eragilea eta espazio jasangarrien taldea).
2023/02/24	Aitziber Campión Gamboa, Sarearen jasangarritasunerako parte-hartzea eta komunikazioa (talde guztiak).
2023/05/10	Kamikaz Kolektiboa, emakumeen eta gizonen egitekoa antolokundeetan (espazio seguruen taldea).
2023/05/17	Uxue Alberdi, Emakumeen eta gizonen gorputzaren bizipenak lan-ingurunean (Gune seguruen taldea).
2023/07/05	Unai Villalba, Ekonomia zirkularra (Espazio jasangarrien taldea).
2023/09/25	Su Hernández, Ekofeminismoa (Gune jasangarrien taldea).



BAI SAREA prestakuntza-saioa.

14. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 4. eranskina.





BAI SAREaren X. Batzarra.

Talde eragileaz eta komunikazio taldeaz gain, zeharkako 3 talde aktibo izan dira: espazio seguruen taldea, espazio jasangarriena eta espazio interseksionalena. Guztira, 31 entitatek parte hartu dute lantaldeetan, gaur egun sarea osatzen dutenen % 41k.

6.6. Enpresentzako prestakuntza

Lan-arloan eta enpresa-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egiteko, Emakundek enpresentzako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu 2023an, kudeaketa aurreratua eta lan-osasuna bereziki kontuan hartuta:

- 2023/10/27: «Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak (VII)» jardunaldia, Kudeaketa Aurreratuaren XXIX. Europar Astearen esparruan (Euskalitek sustatutako astea). Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:

- Kudeaketa aurreratuan berdintasuna txertatzeko tresnei buruzko informazioa ematea.
- Kudeaketa aurreratuan berdintasunerako 3 praktika partekatzea (Lantegi Batuak, Hutchinson- Intecs a eta ULMA Packaging S. Koop.).
- 2023/12/15: «Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako enpresen protokoloen testuingurua eta alderdi praktikoak» izeneko prestakuntza jardunaldia, Emakundek antolatuta eta Osalanen partaidetzarekin. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
 - Enpresek sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean duten erantzukizun penalaren berri ematea, bai eta Estatuko berdintasun-arloko araudien berritasunak eta Emakundek enpresen esku jartzen duen protokoloan duten eragina azaltzea ere.
 - Osalanen orientabideak ezagutaraztea, sexu-jazarpenera eta genero-jazarpenera prebenitzeko.



“Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak (VII)” jardunaldia.



6.7. Funtsezkoak diren eragileekiko lankidetzaz-ildoak

Enpresekin, antolaketa- eta ekoizpen-modu berri berdinzaleagoak bultzatzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da gako diren beste eragile batzuekin aliantzak eta sinergiak sortzea, baita horiekin lan egiten duten erakundeekin ere. Ildo horretan, Emakunderen ustez, estrategikoa da elkarlanean bidelagun izatea bai lan-ikuskaritzaren arloan eskumena duen lan-agintaritzan, bai laneko segurtasunean eta osasunean eskumena duen organismoa, baita EAEko antolakundeetan kudeaketa aurreratua ezartzen eta lehiakortasuna, berrikuntza eta garapen jasagarria sustatzen diharduten organismoak ere. Horrekin guztiarekin, berdintasunezko lan-inguruneak bultzatu nahi dira. Horretarako, honako lankidetzaz-hitzarmen hauek egin dira:

LANKIDETZAZ-HITZARMENA LAN IKUSKARITZAREKIN

Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna sustatzeko eta EAEko enpresetan sexuan oinarritutako bereizkeria-egoerak prebenitzeko edo zuzentzeko 2016an sinatutako hitzarmenaren esparruan, berdintasun-planen erregistroari buruzko informazioa trukatzeko eta kontsultak bideratzeko hainbat jarduketa garatzen jarraitu da, Lan Ikuskaritzaren eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan. Era berean, jardunaldi bat diseinatu da Osalanekin batera, genero-ikuspegitik laneko indarkeriari eta jazarpenari buruz eta genero-enpresentzako araudi-inplikazioen azterketari buruz.

LANKIDETZAZ-HITZARMENA OSALANEKIN

2015ean laneko segurtasun, higiene, ingurumen eta osasunaren arloan sinatutako hitzarmenaren esparruan, genero-ikuspegitik hainbat jarduketa egin dira informazioa koordinatzeko eta trukatzeko, prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzeko, aholkularitza eskaintzeko,

dibulgazioa bultzatzeko eta kontsultak bideratzeko. Halaber, jardunaldi hori antolatu da Lan Ikuskaritzarekin batera, genero-ikuspegitik laneko indarkeriari eta jazarpenari buruz eta enpresentzako araudi-inplikazioen azterketari buruz. Era espezifikoan, elkarlanean aritu gara laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloko tresnak sortzeko, ikuspegi prebentibo eta erreaktiboa oinarri hartuta, baita tresna horien gaineko dibulgazio- eta prestakuntza-ekintzak antolatzeko ere.


LANKIDETZAZ-HITZARMENA EUSKALITEKIN

2017an sinatutako eta 2023ko urriaren 27an berritutako hitzarmenaren esparruan, hainbat jarduketa egin dira hitzarmena betetzeko. Besteak beste, alderdi hauek nabarmentzen dira: genero-ikuspegitik egindako kudeaketari balioa emateko gida eguneratzea eta, Estrategia eta Gizartea elementuari buruzko bi prestakuntza-pilula egitea bideo labur gisa, hurrenez hurren, bai eta kudeaketan berdintasunerako jardunbide egokien bilatzailea elikatzeko enpresa-praktikak identifikatzea eta haien aukeraketa bat aurkeztea ere, urriaren 27an antolatutako jardunaldi bateratu batean.

6.8. Beste proiektu batzuk

Konfekooperekin lankidetzan aritu gara esparru laguntzailean kontziliazio-diagnostikoa egiten, eta Arizmendarrieta Fundazioarekin genero-ikuspegia txertatzeko Partaidetzan eta Inklusioan Oinarrituriko Enpresa Ereduan, zuzendaritzarentzat.





7. BERDINTASUNA PUBLIZITATEAN ETA KOMUNIKAZIOAN



Komunikabideek eta publizitate-agentziek, eragile sozializatzailerik diren aldetik, funtsezko eragina dute errealitatearen pertzepzioan. Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren ekoizpenean aurrera egiteko, Emakunderen lana Begira Batzordearen eta atxikitako entitateen sarearen bidez egituratzen da. Lan-ildo nagusiak honako hauek dira: azterlanak eta ohartarazpenak egitea; materialak, gidak eta tresnak diseinatzea; sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzea; kegak kudeatzea.

7.1. Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea

Begira 1998. urtean sortu zen Emakunderi atxikitako batzorde gisa⁵. Emakundeko idazkari nagusia buru dela, honako hauek osatzen dute batzordea: Eusko Jaurjaritzako Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailerako, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkartereko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea.

Aholku-eta topaketa-batzordea da, eta haren zeregina da aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea, publizitatearen eta komunikazioaren eremuetan sexuan oinarritutako bereizkeria mota oro desagerrarazteko. Halaber, komunikabide publikoek eta publizitate-agentziek emandako edukietan kode etikoak aplikatzea sustatzen du, eta akordioak bultzatzen ditu komunikabide pribatuekin eta agentziekin.

2014-2015ean, publizitate-agentziek, komunikabideek eta genero-arloko espezialistek lankidetzaren prozesu bat garatu zuten, Aholku Batzordeak sustatua, EAEn publizitate eta komunikazio ez-sexistarako Autoerregulaziorako Kode Deontologikoa lantzeko eta hari atxikitzeko. Gainera, kode hori eragingarri bihurtzen duten hainbat dekalogo ere egin dira. Dokumentu horietan, alderdi eta konpromiso etiko batzuk jasotzen dira, publizitatearen eta komunikazioaren jardun profesionalean erabilera sexistak antzemateko eta desagerrarazteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko. 2016an, kodea finkatzeko eta ezartzeko prozesu bat hasi zen, eta, testuinguru horretan, Autoerregulaziorako Kode Deontologikoari atxikitako erakundeen Begira Sarea sortu genuen.



2023. urtean, ekintza hauek egin ditugu:

- EAEn publizitate eta komunikazio ez-sexista lortzeko Autoerregulaziorako Kode Deontologikoari atxikitako **erakundeen sarearen** esparruan, atxikipenari buruzko hausnarketa-prozesuarekin jarraitu da, parte-hartzea eta konpromisoak hobetzeko.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko **Begira Batzordearen** esparruan, ohiko bilera bat egin zen 2023ko irailaren 27an, eta jarraian zehazten diren gai hauek jorratu ziren: aurreko bi urteetako (2021 eta 2022) memorien zirriborroei buruzko informazioa eta kontrastea; egindako aurrerapenak eta lorpenak eta identifikatutako erronkak (sarearen funtzionamendua hobetzea, kodea eta dekalogoak eguneratzea, kodeari atxikitako entitateen jarraipena hobetzea, teknologia berrien inguruan egin beharreko lanari buruz hausnartzea, kolektibo profesional berrietara nola iritsi...); eskura ditugun aukerak (Begira eremurako prestakuntzak sortzeko online prestakuntza-atari batean, etorkizunean Berdintasunerako Behatoki bat sortzea); 2023an, publizitateari eta komunikazioari buruz aurkeztutako kexak aurkeztea eta datuak aztertzea; Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari egindako eskaria aurkeztea, Begira Batzordeari berariaz eginiko helarazpen batekin, hilketa matxisten bi kasuri buruzko ikerketa bat egin dezan, komunikabideetan izan duten tratamendua ezagutzeko eta tratamendu hori KODEAREKIN bat ote datorren ala ez jakiteko; horren ondoren, ekimenarekin bat egiten duten komunikabideekin lanketa bat egin ahal izateko.

7.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa

Begira izeneko batzordearen funtzio nagusietako bat komunikazio eta publizitate ez-sexistaren arloan aholkuak ematea da. Begirak zenbait organismo eta instituzioren kontsultak eta aholku-eskaerak jasotzen ditu, baita herritarren aldetik ere. 2023an, komunikazioari buruzko aholkularitza espezializatuko kontsulta bati erantzun zaio.

Era berean, Begirak herritarren eta erakundeen kexak jaso ditzake. 2023an, 3 espediente bideratu dira:

2023 ESPEDIENTE KOPURUA	
Emandako gomendioak	2
Emakumeen Institutuko Irudiaren Behatokira bideratutako eskariak	1
GUZTIRA	3

Jasotako kexetan oinarrituta, Begirak bi gomendio eman ditu, oinarri hartuta Kode Deontologikoan eta emakumeen kontrako indarkeriaren publizitateari, komunikazioari eta informazio-tratamenduari buruzko dekalogoetan jasotako printzipioak. Eskumenen aldetik, eskabide bat bideratu da Emakumeen Madrilgo Institutuaren barneko Emakumeen Irudiaren Behatokira. Kexa, publizitate edo komunikazio motaren arabera, 2 publizitatearen arloko kexak dira, eta beste bat, berriz, komunikazioaren arlokoak.



7.3. Publizitateari eta komunikazioari buruzko azterlanak, ikerketak eta monitorizazioak

Begiraren funtzio nagusien artean, hauek daude: komunikazioa eta publizitatea aztertzea eta haien jarraipena egitea. Ildo horretan, lanean ari da hedabideak zein publizitate-agentziak genero-ikuspegian oinarrituta monitorizatzeko.

Zehazki, EAEko prentsa digitalean generoa monitorizatzeko proiektuarekin jarraitu dugu 2023an. 1. fasean aplikazio bat diseinatu zen beta bertsioan, baliabide digitalen informazioetan emakumeen eta gizonen presentzia kuantitatiboki aztertzeko, eta interfaze bat martxan jarri zen, baita aplikazioa zerbitzari birtual batean hedatu ere (2020).

2023an zehar, aplikazio hori hobetzen jarraitu da, helburu hauek lortzeko: produkzio-zerbitzaria prestatzea, adierazleak neurtzeko eredu migrazioa, eta proba funtzionalak.





8. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA



Emakume izate hutsagatik emakumeen kontra erabiltzen den indarkeria egungo gizarte- eta kultura-ereduan nagusi diren genero-desberdinkerien ondorioa da. Desberdinkeriatik eratorritako arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei eta haren adierazpenik larrienari —emakumeen kontrako indarkeriari— aurre egiteko, Emakundek gogor dihardu lanean berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan eta prestakuntzan bereziki, hori baita prebentziorako funtsezko tresna.

Indarkeria matxista pairatzen ari diren edo gainditu duten emakumeei eta neskatoei laguntzea da Emakunderen lanaren beste lehentasunetako bat. Horretarako, genero-indarkeriaren biktimak detektatzeko, artatzeko eta erreparazioa emateko baliabideak eta zerbitzuak emateaz arduratzen diren erakundeen jarduera bultzatzen eta koordinatzen du Emakundek, baita haren jarraipena egiten ere.

8.1. Beldur Barik programa

2009. urtean Berdinsarearen esparruan hasi zenez geroztik, Beldur Barik programa handituz eta finkatuz joan da eta, 2013. urtean, Emakundek bere gain hartu zuen programaren zuzeneko kudeaketa. Beldur Barik programa urtero egiten da, gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzeko, indarkeria sexistaren ikuspegi guztiak identifikatzen jakiteko; ondoren, banakako eta taldekako jarrera eta jokabideak eraldatu eta eraiki nahi dira gazteekin, gertatzen diren desberdintasun-eta indarkeria-egoerak garaitu ahal izateko.

Erakunde arteko programa bat denez, hura kudeatze aldera, jarraipena eman zaie foru-aldundiekin egindako lankidetzaz-hitzarmenei eta EUDELekin abiatutako koordinazioari. Era berean, koordinazio-bilerak egin dira Hezkuntza Sailarekin (Berritzegune Nagusiko hezkidetzaz arduraduna), Gazteria Zuzendaritzarekin (Gazteriaren Euskal Behatokia eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua), UPV/EHUrekin eta EITBrekin.

2023an, foru-aldundietako, EUDELeko eta Emakundeko berdintasun-teknikariek osatu dute programaren koordinazio-gunea, eta 3 koordinazio-bilera egin dira.

Beldur Barik programaren barruan, hainbat jarduera programatzen dira, non helburua baita gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste, Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.

BELDUR BARIK LEHIAKETA: Gaur egun emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoerari aurre egiteko, mutikoen eta neskatileen hartzan dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko indibidual edo kolektiboak aitortzea, baloratzea eta bultzatzea da Beldur Barik lehiaketaren helburu orokorra, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzunkidetasunean



eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespen irmoan oinarritutako jarrera eta adierazpenen bidez.

Beldur Barik lehiaketaren 2023. edizioan, 71 udalerrri, kuadrilla edo mankomunitatetan egindako lanek parte hartu dute, eta, guztira, 266 bideo aurkeztu dira. Azkenean, 225 onartu dira lehiaketan parte hartzeko. Adinaren araberako banaketari dagokionez, lan gehienak 12 eta 14 urte artekoen kategorian aurkeztu dira (% 49,3), eta, ondoren, 15 eta 17 urte artekoen kategorian (% 36). % 14,6 dagokie 18 eta 20 urte bitartekoei. Gehienak taldean aurkeztu dira (% 89,7), eta % 89,7 ikastetxeetan.

TOPAKETA: 2023an, abenduaren 1ean, ostirala, egin da Topaketa, Beasaingo Usurbe Antzokian. Streaming bidez emititu zen, eta 96 gaztek parte hartu zuten.



BELDUR BARIK topaketa. Beasain.

12 lehiaketa eta tokiko topaketa antolatu dira: Aiaraldea, Basauri, Enkarterri, Ermua, Iurreta, Mungia, Ondarroa, Santurtzi, Deba, Irun eta Donostia.

Ikus-entzunezko lanen irisgarritasun unibertsalean aurrera egin da, azpigituluak gehituta. Indarrean dauden materialak eguneratzeaz gain (berdintasun-teknikariei eta beste udal- eta foru-eragile batzuei, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko irakasle eta eragileei eta abarri zuzenduak), ikus-entzunezko bitartekoak prestatu dira: gazteei zuzendutako azalpen-bideoak, bideoak zabaltzeko eta sortzeko prozesua errazteko, influencer kolaboratzaile gazteen bidez sare sozialetan eragin handiagoa izateko, eta abar.

Aurtengo edizioan Alarma Morea eta Lisvoa izan dira musikaren atalean, eta Iban Garcia eta Annekdotas aurkezpen-lanetan.



BELDUR BARIK sarien banaketa.



JAIETAKO KANPAINA: jaietan eraso sexistak prebenitzeko kanpaina espezifikoa bat egin da: «Indarkeria Sexistarik gabeko jaien alde». Zehazki, EAEko udalei zuzendutako bi jarduera egin dira:

- **INFORMAZIO-SAIOAK:** hiru informazio-saio egin dira, lurralde historiko bakoitzeko bana, politikariei eta udal-teknikariei zuzenduta. Saio horietan sexu-indarkeria landu da jai- eta aisialdi-inguruneetara loturik, hurbilketa teoriko eta praktikoa baten bidez.
- o **SENTSIBILIZAZIO- ETA JARDUERA-MATERIALA:** sensibilizazio-materiala jarri da udalen eskura, bai eta jai- eta aisialdi-inguruneetan sexu-indarkeria prebenitzeko jarduketara-tresnak ere.



Udalei zuzendutako “Indarkeria Sexistarik gabeko jaien alde” informazio-saioa.

8.2. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sensibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten antolakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Irabazi-asmorik gabeko antolakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sensibilizatzen eta prebenitzen, eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan, eta esku-hartze sozialeko funtsezko mekanismoa da.

Hori guztia dela eta, Emakundek laguntza ekonomikoa ematen jarraitu du, 2023. urtean, emakumeen kontrako portaera bortitzen inguruan sensibilizatzeko edo horiek prebenitzeko ekintzak martxan dituzten entitateei, baita indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzeko estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoaren zenbatekoa 300.000 eurokoa da. 80 eskaera aurkeztu ziren, eta 53 diruz lagundu dira¹⁶.

8.3. Lankidetzaren sozialerako ildoak eta proiektuak

SARE-PROIEKTUA INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK ATERA DIRENEN ELKARTEKIN:

Emakunden, urte asko daramatzagu indarkeria matxistatik bizirik atera diren eta erresilienteak diren emakumeen elkarteekin elkarlanean. Laster ikusi zen elkarte horien artean sareak sortzeko beharra eta, helburu horrekin, zenbait jarduera jarri dira abian. Hori horrela, 2023an, Prestakuntza Feministako eta Ahalduz Topaketetako prozesu bat garatu da, helburu bikoitzarekin: batetik, elkarteetan ikuspegi feminista txertatzeko beharrezkoa den prestakuntza eskuratzea eta, bestetik,

16. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 5. eranskina.



elkarte horien arteko hurbilketa erraztuko duen gune bat sortzea. Hauek izan dira prozesu horretako parte-hartzaileak:

- Bizitu Elkartea (Bilbo)
- Goizargi (Vitoria-Gasteiz)
- Guerreras del Alto Deba Debagoieneko Emakume Elkartea (Arrasate).

Bi bloke osagarri izan ditu:

- **Prestakuntza feminista:** ikastaro hauek eman dituzte: ahalduztze kolektiboa, ahizpatasuna eta tratu ona, komunikazio asertiboko prestakuntza, sarea eraikitzea, asoziazionismo eta esku-hartze sozial feministarako metodologiak, trebetasun administratiboak, indarkeria matxistak eta, indarkeria eta interseksionalitatea.

Aurrez aurreko 6 saio izan dira, bina ordukoak, hiru probintzietan garatu diren hainbat prestatzaileren kontura

- **Ahalduntze-topaketak:** gune terapeutiko bat da bizirik atera diren emakumeen elkarreentako kideentzat, alde aurretik banakako terapia-prozesu batetik igaro direnentzat. Topaketen ardatza ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesuak sustatzea da, bai eta indarkeria ikuspegi feministatik ulertzen laguntzea ere.

Aurrez aurreko 6 saio egin dira, launa ordukoak, Pepa Bojóren eskutik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat Emakume-etxetan.

Prestakuntza eta topaketak ezinbesteko urratsak dira Bizirik irten diren Pertsonen Elkartearen Sarean irazki sendo bat ehuntzeko.

GENERO-IKUSPEGIA DUEN MENTORETZAKO PROIEKTU PILOTUA:

EMAKUME MENTOREAK: 2021ean, lankidetzaz abiarazi zen BIZITUrekin, emakumeen aurkako indarkeria matxistatik bizirik atera diren pertsonen osatzen duten elkartearekin, Emakundek aholkularitza sozialerako «Emakume mentoreak» proiektua finantzatu eta abian jartzeko emandako laguntzaren bitartez..

Indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen BIZITU elkartearen presidentek eta Dones mentores-Emakume mentoreak proiektuko koordinatzaileak genero-ikuspegiaren gizarik-mentoretzako programa berritzaile bat aurkeztu zuten. Programa hori Kataluniako eta Madrilgo hainbat udalerritan ezarri zen 2017tik aurrera, eta Danimarkako KVINFO Mentornetvaerke (Generoari, Berdintasunari eta Aniztasunari buruzko lkerketa eta Informaziorako Zentroa) bulegoarekin senidetu zen.


Programaren oinarria da gizarik-inpaktua areagotu egiten dela laguntza-programa publikoen osagarri den esku-hartze horizontalarekin, alegia, indarkeria matxista pairatu duten emakumeak mentore gisa inplikatu indarkeria-egoera antzekoak pairatzen ari diren beste emakume mentoratu batzuen indarberitze-prozesuan.

2021ean, proiektu pilotu berritzaile hori jarri genuen abian EAEko testuinguruan, hiru ardatz/osagairekin: Emakume Mentoreak aholkularitza, bideratzaile eta prestatzaile gisa (funtzio hauekin: aholkulariak identifikatzea, hautatzea eta trebatzea, zerbitzu bideratzaile eta mentoratuekin harremanetan jartzea, mentoreak eta mentoratuak esleitzea, monitorizatzea eta laguntza tekniko ematea eta ebaluazio egitea), Bizitu elkartea, emakume mentoreen hornitzaile gisa, eta Bilboko eta Barakaldoko Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak (Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren mendekoa), indarkeriaren biktime izan diren emakume mentoratuak bideratzeko zerbitzu gisa.



Urte eta erdi baino gehiago igaro da 2022ko proiektu pilotua abian jarri zenetik, eta egiazaturik daude programaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna, batez ere Bizitu elkarteko aholkularien inplikazio handiagatik. Izan ere, emaitza nagusietako bat da Bizitu elkarteko 12 emakume trebatu direla mentore gisa, eta Bizitu elkarteak Emakunderekin duen lehen mentore sarea eraikitzeke oinarriak ezarri direla.

2022an, proiektu pilotua ikusgai jarri zen Iruñean maiatzean egindako Estatuko Mentoretza Kongresuan. Azaroaren 17an, jardunaldi bat antolatu zen Euskadiko Artxibo Historikoan, Bilbon. Bertan, honako hauek hartu zuten parte: Beatriz Hernández de Fuhr, genero-ikuspegidun mentoretzako aholkulari seniorra Danimarkan, Lores López, indarkeria matxistan aditua den legelaria eta Dones Mentores-Emakume Mentoreak proiektuko koordinatzailea, eta Marga Aguilar eta M. Mar de Miguel, Bizitu elkarteko aholkulariak. Jardunaldiak agerian utzi zuen Osakidetzak, gizarte-zerbitzu espezializatuek eta bizirik atera



Volar dokumentala.

diren emakumeen gainerako elkarteek interes handia zutela programan, eta oso erabilgarria zela egiaztatu zen.

Hala, proiektu horri jarraipena eman zaio 2023an, Biziturekin hasitako mentoretza-prozesua Goizargi eta Debagoieneko Emakumeen Elkartera zabalduz. Lores García (EmakumeMentoreak) garatutako banakako eta taldeko saioen bidez, aurrera egin da indarkeria matxistaren biktime/erresiliente diren eta aipatutako elkarteetan sartuta dauden emakumeek osatutako mentoreen definizioan.

PRESTAKUNTZA IJITO-IKUSPEGIAREKIN: 2023an, hainbat ekimen gauzatu dira AMUGE elkartearekin lankidetzan (Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartea). Alde batetik, kontratu bat formalizatu da entitatearekin, EAEko genero-indarkerian esku hartzeari buruzko diagnostikoaren bigarren fasean aurrera egiteko, betiere ijito-ikuspegia kontuan harturik. Horren barruan, ijito-ikuspegia duen prestakuntza bat diseinatu da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko sistemako profesionaleri zuzendurik (2024an Jabetuz Programaren esparruan emango da), NBEk ezarritako genero-indarkeriaren biktimeentzako funtsezko zerbitzuetan kalitate-estandarrak behar bezala hedatzea lortzeko. Era berean, biktime potentzialei zuzendutako materialak eta profesionaleri zuzendutako beste bat egin dira. Material horiek 2024an argitaratu eta banatuko dira.

VOLAR DOKUMENTALA: *Volar* film dokumentala Emakundek ekoitzi zuen 2015ean, eta Bertha Gaztelumendik zuzendu; iraganean genero-indarkeria pairatu duten bederatzik emakume dira protagonista, eta esperientziak eta bizi-ibilbidea lehen pertsonan kontatzen dute. *Volar* dokumentala egin eta proiektatzearen ondorioz emakume biktimeen eta bizirik atera diren emakumeen elkartearen arteko dinamika baliatuz, Emakunderen erreparazioko proiektuaren barruan, emakume biktimeen/bizirik atera diren emakumeen elkarteekin harreman estua izan dugu.

2023. urte osoan, Emakundek filma bidaltzeko 35 eskaerari erantzun die, prestakuntza- edo sentsibilizazio-jardueretan erabiltze aldera, batez ere azaroaren 25eko ospakizunaren inguruan. 21 bidalketa egin dira EAETik kanpoko hainbat herritara. Proiektzio horietako zenbaitetan, protagonistek parte hartu dute entitate antolatzaileek hala eskatuta. Zehazki, 5 udalerrik eskatu dute protagonistek beren jardueretan parte har zezaten (haietako bat EAETik kanpo).

8.4. JABETUZ programa

2015. urtean, Emakundek online prestakuntzako oinarrizko lehen ikastaroa diseinatu eta abian jarri zuen: «JABETUZ» programa, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionali zuzenduta.

Programa horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia bateratu nahi da. Arreta hori ematen den eremuetako instituzioetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakunde arteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima haien arreta hobetzen laguntzen du.

JABETUZ, OINARRIZKO IKASTAROA: Oinarrizko online prestakuntza-ikastaroak 85 orduko iraupena du, 6 gaikako unitate ditu, eta ikastaroaren helburu nagusia, batez ere, “Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Akordioaren” printzipio orokorretako bat indartzera bideratuta dago; printzipio hori emakumeen ahalduntzea da.

2022. urtean, Jabetuzen oinarrizko bi ikastaro eman dira: 17. edizioa martxoaren 6an hasi zen eta 18. edizioa, berriz, irailaren 11n. 169 pertsonak hartu dute parte; 17 gizonak izan dira, eta gainerako 152ak, berriz, emakumeak, biktima horiei arreta emateko erakunde arteko esku-hartze eremu guztietakoak, hala nola sistema judiziala, soziala, hezkuntzakoak, sanitarioa eta segurtasunekoak.

JABETUZ PRESTAKUNTZA AURRERATUA: Oinarrizko ikastaroaz harago, Erakunde arteko II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharretan aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharreri dagokienez ere. Hain zuzen ere, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zen, hauetan esaterako: «Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabak» eta «Desgaitasuna duten emakumeak».

Horrela, 2016an ikastaro aurreratua jarri zen abian. Orduz geroztik, pixkanaka eduki berriak txertatuz edo horietan sakonduz joan da eta, hala, eskola-ordu gehiago ditu ikastaroak.

Gainera, 2021ean indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeei buruzko ikasgai berri bat eman zen, 20 ordukoa. Bereizita eskaini zen hura, aurretik Jabetuz ikastaro aurreratua egin zuten ikasle guztiek eduki berri hori eskura zezaten.

2022. urtean, prestakuntza berregituratu egin zen, hasieran pentsatutako Jabetuz ikastaroan gai berriak txertatu direlako arian-arian. Horrela, 2023rako Jabetuz prestakuntzak hainbat ikastaro izan ditu, eta guztiak ere modu independentean deitu eta ziurtatu ziren. Zehazki, ikastaro hauek antolatu dira:



1. Indarkeria matxistaren biktima diren seme-alabei buruzko ikastaroa,

30 ordukoa, irailaren 11n hasi eta urriaren 8an amaitua. Guztira, 89 pertsonak hartu dute parte, eta horietatik 81 emakume eta 8 gizon. Ikastaro horrek bi unitate didaktiko ditu, eta gaiari buruzko araudia jorratzen du, giza eskubideen, haurren eta generoaren ikuspegi hirukoitzetik; seme-alabek zuzeneko biktima gisa pairatzen duten indarkeriaren ondorioak aztertzen dira, eta, era berean, gogoeta egiten da amaren eta seme-alaben arteko loturan sor daitezkeen kalteei buruz, baita indarkeria hori jasaten duten amek beren seme-alaben zaintzan eta babesean duten zeregina indartzeko beharrari buruz ere.

2. Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakumei buruzko ikastaroa,

45 ordukoa, apirilaren 11n hasi eta ekainaren 18an amaitua. Guztira, 88 pertsonak hartu dute parte; horietatik 79 emakumeak eta 9 gizonak. Ikastaro horrek 5 unitate tematiko ditu, eta desgaitasuna duten emakumeek dituzten oztopo fisikoak eta psikosozialak ikusaraztea du helburu, baita arreta-baliabideak eskuratzeko dituzten zailtasunak ikusaraztea ere. Modu espezifikoagoan lantzen ditu desgaitasun fisikoa eta organikoa, entzumen-desgaitasuna, gaixotasun mentala, adimen- eta garapen-desgaitasuna eta ikusmen-desgaitasuna duten emakumeen errealitatea eta premiak.

3. Indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumei buruzko ikastaroa,

30 ordukoa, urriaren 9an hasi eta azaroaren 5ean amaitua. Guztira, 90 pertsonak hartu zuten parte, eta horietatik 82 emakumeak ziren eta 8 gizonak. Ikastaro hori bi unitate didaktikok osatzen dute. Indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeek pairatu duten eta pairatzen duten indarkeria ikusaraztea da helburua. Lehenengo gailan, adineko emakumeen aurkako genero-indarkeria aztertzen da, bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin dituzten harremanetan: arrisku-faktoreak, zer oztopori egin behar dieten

aurre, zer estrategia garatzen dituzten tratu txarrekin bizitzeko, zer ondorio dituen indarkeriak, eta, azkenik, biktima horien arreta hobetzeko zenbait proposamen egiten dira. Bigarren gaia praktikoagoa da, alegia, profesionalak aurki ditzaketan indarkeria-egoerei nola heldu lantzen da, sei kasu praktikoren bitartez.

JAKITUN PROGRAMA: Emakundek JAKITUN programa jarri du abian 2023an. Ekimen horren bidez, Eusko Jaurlaritzako hainbat arlotako politikariei eta teknikariei analisi-elementuak eman nahi zaizkie, indarkeria matxistaren prebentzioarekin eta arretarekin lotutako hainbat gaiari buruzko pertsona kualifikatuek aurkezturik.



Jakitun programa. Uztailaren 14ko saioa.





Jakitun programa. Azaroaren 14ko saioa.

Lehenengo bilera uztailaren 14an izan zen, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, eta hezkuntza afektibo sexualari buruz hitz egin zen; bigarrena, berriz, azaroaren 14an izan zen Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, eta ziberindarkeriak izan ziren hizpide.

8.5. Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak

2015etik, Informazio Sistemen Taldearen ekimenez, eta indarkeria matxistaren analisi estatistikoan sakontzeko, bi txosten egiten dira urtero:

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren intzidentziari eta prebalentziari buruzko txostena:

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzaren (Segurtasun Saila) Azterlan eta Analisi Atalak ematen dituen datuekin egiten da nagusiki, eta indarkeriaren inpaktuaren estatistika-erretratua eskaintzen du, salaketei eta ikerketei buruzko datuen bidez.

2023an, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren irismenaren eta garrantziaren ezagutzan sakontzen jarraitzeko helburuarekin, hobekuntza esanguratsuak sartu dira edukien egituraketari dagokionez, datuen kontsulta errazteko eta datuen interpretazio egokia egiteko.

Arreta-baliabideen datuei buruzko txostena:

Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta toki-entitateek Emakunderen aplikazio baten bidez emaniko datu kuantitatibo bidez egiten da. Zehazkiago, bikotearen edo bikotekide ohiaren esparruan edo familia barruan emakumeen kontrako indarkeria matxista pairatu duten biktimei zuzendutako zerbitzuak dituzten erakunde eta sailek emaniko datuekin, baita sexu-indarkeria eta beste indarkeria mota batzuk pairatu dituztenei zuzenduekin ere (sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, ezkontza behartuak eta emakumeen genitalen mutilazioa), betiere Istanbulgo Akordioarekin bat etorririk.

Bildutako informazioarekin, analisi-txostenak egiten dira, honako helburu hauekin:

1. EAEko erakunde publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arretaren irismenari buruzko datu estandarizatuak biltzea, baliabide mota bakoitzaren erabiltzaileen bolumena kuantifikatzeko eta profilak deskribatzeko.
2. Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimeentzako baliabideen inbertsioa eta ezaugarriak neurtzeko datuak biltzea (langileei, prestakuntzari, gastuari, egoitza-plazei eta abarri dagokienez).
3. Horiei arreta ematen dieten erakunde guztiei EAEko erakundeen erantzunaren erretratu bat eskaintzea, hausnarketa partekatua errazteko eta zer alderdi kritiko dauden eta zer eremutan hobetu daitekeen jakiteko.



Urteko bi txostenak Emakunderen webgunean argitaratzen dira, «Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak» atalean. Atal horretan bertan, erailei buruzko datu estatistikoak eta Segurtasun Saileko Azterlan eta Analisien Atalak hileroko bidaltzen dituen taulak ere kargatzen dira.

Baliabideen mapa: 2023an, eguneratuta mantendu da baliabideen mapa. EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen eskura dauden baliabideak eta zerbitzuak biltzen ditu, baita biktima diren emakumeei eta adingabeei arreta emateko eskaintza publikoa ere.

Baliabide bakoitzak eskaintzen duen laguntza motaren arabera sailkatu da informazioa: segurtasuna, informazioa eta orientazioa, arreta psikologikoa, laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoa, bizitegi- edo etxebizitza-laguntza, asistentzia sanitarioa, ahalduntzea eta beste batzuk.

Mapan jasotako informazio guztia eguneratu egiten da biktimei emandako arretari buruzko datuak jasotzen direnean. Modu berean, instituzioek berek ere eguneratu ditzakete haiei buruzko datuak, datuak biltzeko aplikazioaren bidez.

8.6. EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2023ko urtarrilaren 19an, Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko emakumeen arteko III. Erakunde arteko Akordioa sinatu zen, eta eutsi egin zitzaion Jarraipen Batzordeari, zeina I. Akordioaren esparruan sortu baitzen. Batzorde horren eginkizunen artean, Akordioak hauexek jasotzen ditu: edukien aplikazioa aztertzea; hitzarmena sinatu duten erakundeei egoki irizitako ekintza guztiak proposatzea, koordinazioa hobetzeko eta Akordioaren Jarduera Koordinatuko Protokoloan jasotako neurriak eta jarraibideak benetan aplikatzen direla bermatzeko; baterako jarduerak proposatzea; eta, horretaz gainera, lan-ildoak eta lehentasunezko gaiak adostea, haren xedearekin lotutako akordioak hartzea eta kexak jasotzea Jarduera Koordinatuaren Protokoloan ezarritako jarraibideak ez betetzei dagokionez —eta, kasuak hala eskatzen badu, horiek zuzentzeko neurriak proposatzea—; era berean, beharrezkoa bada, akordioan jasotako Jarduera Koordinatuaren Protokoloa eguneratzea, baita bere jarduera-esparruan egokitzen zaion beste zernahi funtzio ere.

Akordioaren helburua da ahalik eta koordinazio eta lankidetzara onena lortzea EAEn inplikaturik dauden erakundeen artean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala emateko, ematen zaien arreta hobetzeko eta biktimei indarkeria matxistarik gabeko bizitza egokia lortzen laguntzeko. Horretarako, EAEn jarduketa homogeneoa eta arreta integrala eta kalitatezkoa bermatzen duten jarraibideak ezartzen dira zenbait arlotan (osasuna, polizia, justizia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza eta enplegua, kasu).



Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gainera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (osasungintzan, herritarren segurtasunean, justizian, gizarte-zerbitzuetan, gizarte-bazterketan, enpleguan, etxebizitzan eta hezkuntzan eskudun direnak), EAEko hiru aldundiak, Eudel, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

2023an, Jarraipen Batzordeak bi bilera egin ditu: ezohiko bilera bat ekainaren 2an, eta urteko ohiko bilera, abenduaren 21ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua bertan zela, Emakunderen egoitzan. Bilera horretan, Emakunderen zuzendari eta Batzordeko presidentek 2024ko ekitaldirako Lan Plana aurkeztu zuen, EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakunde arteko III. Akordioaren garapenari dagokionez.



Erakundeen arteko III. Akordioa sinadura.

Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, baita beste lantalde batzuk ere, aldi baterako eratuak, batzordeak edo Erakunde arteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren arabera gaiak aztertzeke. Gaur egun, Informazio Sistemaren Taldea da abian dagoen lantalde tematikoa, bai eta sexu-indarkeriari buruzko 24 orduko Krisi Zentroen Taldea ere.

Informazio Sistemen Taldea

Informazio Sistemen Taldea 2013an sortutako lantalde espezifiko bat da, Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Akordioaren esparruan. Hona hemen haren helburuak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeen kontrako indarkeria matxista agertzeko moduen ezaugarriak, kausak eta ondorioak aztertzea eta zabaltzea.



Erakundeen arteko III. Akordioaren Jarraipen Batzordearen bilera.



2. Diagnostikoak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen kontrako indarkeria matxistaren egoera identifikatzea ahalbidetzeko.

3. Indarkeriaren biktimei diren emakumei arreta egiteko baliabide eta zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzea.

Indarkeriaren biktimei arreta ematen eta horiei buruzko datuak jasotzen diharduten instituzioetako teknikariek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzako hainbat sail (Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak —Justizia eta Gizarte Politiketako Zuzendaritzak—, Osasuna —Osakidetza—, Segurtasuna, Lana eta Enplegua —Lanbide—, Hezkuntza, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa —Etxebizitza Zuzendaritza—), hiru foru-aldundietako eta toki-entitateetako berdintasun-zerbitzu espezializatuak (Eudel).

Urtero, bilera bat egiten da eta, bertan, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko datuak aurkezten dira (bai estatistikoak, bai baliabide publikoetan biktimei ematen zaien arretari buruzkoak), lortutako informazioari buruzko gogoeta egiten da, eta hobekuntzak planteatzen dira hurrengo datu-bilketei begira. 2023ko azaroaren 8an, Informazio Sistemen Taldeak urteko osoko bilkura egin zuen Emakunderen egoitzan.

Sexu-indarkeriari buruzko Talde Teknikoa

2023an, Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-indarkeria artatzeko 24 orduko krisi-zentroak abian jartzeko koordinazio-talde teknikoa osatu zen, Emakundek bultzatuta. Biktimei arreta hobea emateko Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen barruan eratu zen talde hori, EAEn sortuko diren hiru krisi-zentroek 24 orduz modu koordinatuan jardungo dutela bermatzeko.

Taldea hiru foru-aldundiek eta Emakundek osatzen dute, eta taldearen berehalako helburua da sortuko diren krisi-zentro guztiek gutxienera ezaugarri komunak dituztela ziurtatzea, EAEn emakumeen kontrako

indarkeria matxista mota guztiei arreta emateko lehendik zeuden arreta-ereduekin koherenteak izan daitezten.

Lantalde horrek 3 bilera egin ditu 2023an: otsailaren 10ean, martxoaren 10ean eta apirilaren 18an.

2023ko urrian eta azaroan, Nerea Barjola, Carmina Serrano, Norma Vázquez eta María Naredo profesional espezializatuak prestakuntza eman dute aurrez aurre eta online, EAEko sexu-indarkeriari arreta emateko 24 orduko zentroak osatuko dituzten talde profesionali zuzendutako hasierako prestakuntzako lau jardunalditan.



Ikastetxeetan sexu-indarkeriaren biktimei arreta emateko 24 orduko prestakuntza.

Biktimen segurtasuna babesteko neurriak

Bestetik, 2015. urteaz geroztik, Emakundek genero-indarkeriaren biktimek segurtasuna izateko laguntza ematen du. Sarraila-zerbitzua ordaintzen die, hau da, biktimaren ohiko etxebizitzaren sarraila aldatzea, betiere babes-agindua eta epailearen berariazko baimena badu aldaketa hori egiteko. 2023an, 79 emakumek jaso dute zerbitzu hori, Emakundek bere gain hartu baitu sarraila-aldaketan fakturen kostua (18.282,47 € guztira).

8.7. Baliabideen kudeaketa integratua

2022an, hasiera eman zitzaion EAEn emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta hobetzeko kudeaketa integratuan pixkanaka aurrera egitea ahalbidetuko duen lan-prozesu bati.

EAEko erakunde publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei eskaintzen dieten arretan hiru administrazio-mailetako erakundeak daude sartuta: Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta udalak.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzan sei sail daude konprometituta (Segurtasun Saila, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, Osasun Saila, Lan eta Enplegu Saila eta Hezkuntza Saila) eta horietako bakoitzak hainbat programa eta zerbitzu eskaintzen dizkie biktima horiei.

Kudeaketa integratuan aurrera egingez gero, zerbitzu, programa eta erakunde horien arteko koordinazioa indartuko da, biktima horiei ematen zaien arretan integraltasun eta pertsonalizazio handiagoa lortzeko eta birbiktimizazioa saihesteko.

Proiektu horren helburua bat dator Gobernu Programan jasotako ekimenetako batekin. Zehazki, 5. ekimenarekin, hau da, «Espedienteen kudeaketa integratua ahalbidetzen duen leihatila bakarra abiaraztea

indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babesa emateko, horrela, pertsonalizatutako ekintza-programak ezarri ahal izateko», zeina 93. konpromisoaren barruan baitago, «Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen kontrako indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat eraikitzea».

2023an egindako lan-prozesuarekin, proiektuaren bigarren fasea bete da. Fase horretan, Jaurlaritzako zenbait sailletako zerbitzuen eta prestazioen arteko koordinazioaren hobekuntzak aztertu eta identifikatu dira (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila; Osasun Saila; Segurtasun Saila; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila; Lan eta Enplegu Saila; eta Hezkuntza Saila, zehazki). Prozesu horretan, halaber, plataforma informatiko bat sortu da, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazio guztia biltzeko. Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du plataforma hori.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin, 2022an hasitako lankidetzak da atari horren sorburua. Etorkizunean, atari horretan ostatatu ahal izatea baliabideen kudeaketa integratuari loturiko elkarreragingarritasun-aukera egotea du helburu, herritarrei eta biktimekin lan egiten duten profesionaleri zuzendutako zerbitzuekin. Lan-esparru horren harira, guztira 10 bilera egin dira 2023ko urtarriletik abendura.



8.8. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak

Emakundek koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokolei buruzko txostenak egiten ditu, eta aholkularitza eskaintzen du, toki-administrazioek erreferentzia-esparru bat izan dezaten, hala eskatzen badute. Era berean, hainbat modutan aritzen da elkarlanean indarkeria matxistaren aurkako jarduketa-protokoloak prestatzen ari diren berdintasun-zerbitzu, erakunde eta entitateekin: laguntza teknikoa, aholkularitza, esku-hartzea, jardunbide egokiak biltzea, etab.

8.9. Adineko emakumeak

2023an, adineko emakumeei buruzko bi gida egin dira. Bata adineko emakumeentzat, gida didaktiko bat eta baliabideen atal bat dituen adineko emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Bestea, berriz, EAEko profesionalentzat, adineko emakumeen aurkako indarkeria eta tratu txarretan esku hartzeko. Jesús Goyenechea Vidal antropologo, gizarte-hezitzaile eta Jabetuzeko irakasleak egin ditu gidak, Emakundek 2022an egindako enkarguari erantzunez.

8.10. Emakumeen mutilazio genitala

2013an hasi den eta harrezkeroztik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu baten langai eta aztergai izan da emakumeen genitalen mutilazioa (EGM), emakumeen kontrako indarkeria mota bat baita.

2014. urtean, EAEn egindako EGMari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta EAEko administrazio publikoetako langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EGMa prebenitzeko arlo sanitarioko eta hezkuntza-arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalak osatutako talde sanitarioak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzegune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzaitzako profesionalak osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2023an ere, Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin EGMaren arloan duen lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Modu koordinatuan egin dira aholkularitza eta bideratzeak, gizarte-zerbitzuekin, Osasun Sailarekin eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. Jardunaldietan parte hartu da, eta UNAFek antolatutako informazio-bilerak egin dira, ezagutza hobetzeko, konpromisoen berrikuspenak egitea egokia den aztertzeke eta esparru horretan jarduteko ildo berriak aztertzeke. Gainera, zortzigarren urtez jarraian, Emakundek bat egin du EGMaren aurkako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak «indartzeko» NBEk egindako eskaerarekin, ekintza horren aurkako Nazioarteko Egunaren harira.



8.11. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa

Gizakien salerosketari heltzeari dagokionez, Askabide entitateari emandako dirulaguntza izendun bat izapidetu eta kudeatu da, sexu-esplotaziorako giza salerosketaren biktimak diren emakumeei eta horien seme-alabei arreta integrala emateko baliabidea kudeatzeko eta biktima horiei arreta anbulatorioa emateko. Gainera, Erredentzioko Oblatuen Kongregazioarentzako dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako giza salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.

2023ko ekitaldian, sexu-esplotaziorako giza salerosketaren biktima diren emakumeentzako eta horien seme-alabentzako bizitegi-baliabidea



Emakumeen eta neskatoen salerosketaren aurkako mahaia.

mantentzen eta zuzenean kudeatzen jarraitu da. Etxebizitza hori 2019an gaitu zuen Emakundek, eta 2020ko urtarriletik dago martxan. 6 pertsonarentzako tokia du. Ertzaintzak berariaz horretarako emandako txosten batean proposatutako segurtasun-neurriak biltzen ditu.

Halaber, Emakundek bultzatzen eta koordinatzen duen Sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketari buruzko mahaiarekiko koordinazioari eutsi zaio. Bertan parte hartzen dute, Emakundez gain, Ertzaintzaren Zuzendaritzak eta Segurtasun Saileko Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak, Familia eta Haurren Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Zuzendaritzak, Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza Nagusiak, hiru foru-aldundietako Adingabeen Zerbitzuek, Espainiaren EAeko Gobernu Ordezkaritzak, segurtasun-ingar eta -kidegoek, eta hamaika GKEk, besteak beste, Caritas, CEAR Euskadi, Munduko Medikuek, HIESaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Gizarterako, Aukera, Save the Children, Askabide, Oblatuak eta Accem.

Maiatzaren 8an, Emakumeen eta Nesken Salerosketaren aurkako Mahai Sozialaren bilera egin zen. Saio hartan, Erakunde arteko Mahaia osatzen duten entitate guztiak izan ziren, entitateei Emakunderen proposamena jakinarazteko, balorazio-txostenak egin ahal izango dituzten entitateei dagokienez (betiere aurrez Emakundek egiaztatu ondotik, Berdintasuneko Konferentzia Sektorialaren 2022ko maiatzaren 27ko Akordioaren zazpigarren puntuan aurreikusitakoaren arabera).

Gainera, 2023an, *Genero-indarkeriaren biktimentzako prozesu penalari buruzko informazio-gida eta Biktimen eskubide nagusiak prozesu penalean* liburuxkak berrargitaratu dira bertsiio guztietan: gaztelania eta euskara, frantsesa eta arabiera, ingelesa, portugesa, errumaniera eta irakurketa errazeko gaztelania-euskara.



Gida eta liburuxka Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Lurralde Batzordeko lantaldean egin ziren. Ondoren, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta hobea emateko baliagarriak direnez, Bizkaiko eta Arabako lurralde-batzordeek ere beren gain hartu dituzte bi material horiek. Prozesu horretan guztian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearen laguntza izan da.

Ezkontza behartuak

2023ko otsailaren 14an, Immigrazio Foroan *Behartutako ezkontzak, EAEn hautemateko orientabideak eta jarraibideak* izeneko dokumentua aurkeztu zen, Giza Salerosketaren aurkako Erakunde arteko Mahaiaren esparruan egin. Agiri hori garatu egingo da, eta deribazio-prozedurak eta biktimei arreta integrala emateko esku hartzen duten erakundeen koordinazio-prozedurak bilduko ditu.

8.12. Erakunde arteko lankidetzak-ildoak eta -proiektuak

Emakunderen Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Arloak mantentzen ditu erakunde arteko ohiko lankidetzak, besteak beste, honako entitate hauekin:

Berdintasun Ministerioa	<ul style="list-style-type: none"> - Emakundek bi urtean behin ematen dizkio Berdintasun Ministerioari EAEko indarkeriaren biktimei arreta emateko baliabideei buruzko datuak, DERA aplikazioaren bidez. 2023an, 2022. urteari buruzko informazioa sistematizatu eta eman da. - Emakumeen kontrako indarkeria matxistarekin lotutako gaiei buruzko informazioa, komunikazioak, bilerak eta abar trukatzeko ditugu, eta, modu berean, estatu-mailako dokumentuei buruzko ekarpenak bidaltzen ditugu, balorazioa eskatzen digutenean.
Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	<ul style="list-style-type: none"> - Gipuzkoako Genero Indarkeria Koordinatzeko Probintzia Batzordeetako talde teknikoak 2023an egindako bileretan izan da Emakunde. - Gainera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako genero-indarkeria koordinatzeko probintzia-batzordeetako kide da Emakunde —horiek bultzatzen dituzte hiru probintzia-azitegiek—.
Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokia	Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokian parte hartzen du Emakundek.
Berdinsarearen Indarkeria Matxistaren Batzordea	Berdinsarearen Indarkeria Matxistaren Batzordean parte hartzen du Emakundek.





9. BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA SEKTORE PRIBATUAN



Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean ezarritako funtzio eta mugen arabera, Emakunderi dagokio sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzea. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubideen Defentsa Arloaren jarduerak jardun-eremu hauek hartzen ditu: zuzeneko arreta telefonikoa eta presentziala; aurretiko azterketa behar duten eta idatziz erantzuten zaien kontsultak; hirugarren jarduera-eremua ikerketa-prozedurei buruzkoa da; eta, azkenik, Lan-arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 95. artikulua 3. apartatua ezarritako irizpenak ematea.

9.1. Aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza

2023an, herritarrei arreta emateko berehalako 203 zerbitzu eskaini ziren. Horietatik gehienak (% 52) dibortzioei, banantzei, zaintzei eta mota askotako gatazkei buruzkoak dira (auzokideen erkidegoa, senideak, oinordekotzak...); gai horietan emakume bat izan da eskaeraren titularra, baina ez dira Emakunderen jardun-eremuaren eskumenekoak. Lan-eremuko galderak % 24 dira. Azkenik, genero-indarkeriaren inguruko aholkularitzak zenbatu dira (eskaeren % 24).

9.2. Aholkularitza-kontsultak

Herritarren arretarako berehalako zerbitzuez gain, 2023an 59 kontsultari erantzun zitzaizkien idatziz. Eskaera horiek aipatzen dituzten arrazoen artean, 34 lan-esparrukoak dira; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da. Azken esparru horretan emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina, hala ere, idatzizko orientabideak eta aholkua jaso dituzte eskaera horiek ere. Zerbitzuen arloko 4 aholkularitza-saio izan dira; bestalde, bai kirol-arloan, bai komunikabideen eta publizitatearen arloan, bakoitzak bi kontsulta jaso ditu, eta elkarte-arloak eskaera bat jaso du.

9.3. Ikerketa-prozedurak

2023an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eskubideen Defentsarako arloak kexen 24 prozedura landu ditu. Espediente guztietatik, 9 gomendio bidali dira, guztiak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatu eta bermatzeko proposamenetan oinarritutakoak. 6 espediente beste erakunde batzuetara bideratu dira, eta horietatik 1, egoitza soziala EAetik kanpo duen erakunde baten publizitateari buruzkoa zenez, Madrilgo Emakumeen Institutuko Emakumeen Irudiaren



Behatokira bideratu zen. Gainera, bi kexa bideratu zaizkio Arartekoari eta hiru beste administrazio publiko batzuei, berdintasunerako teknikarien bidez. Gainera, 9 eskaera artxibatu dira: hiru, eskatzaileek eremu judizialean aurkeztu dituztelako; bost, Emakunderen eskumen-eremutik kanpo daudelako; eta beste bat, kexa izapidetzeko beharrezko dokumentazioa ez bidaltzeagatik.

2023	
HERRITARREN BEREHALAKO ARRETARAKO ZERBITZUAK	203
- Lan-esparrua	48
- Indarkeria	48
- Beste batzuk	107
IDATZIZKO KONTSULTAK	59
- Lan-esparrua	34
- Beste batzuk	16
- Zerbitzuak	4
- Komunikabideak eta publizitatea	2
- Kirola	2
KEXEN KOP.	24
- Lan-esparrua	10
- Zerbitzuak	8
- Komunikabideak eta publizitatea	3
- Beste batzuk	2
- Kirola	2
GUZTIRA	285

9.4. Irizpenak ematea

Gizarte-arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 95.3 artikulua aplikatuz, Bilboko 10. gizarte-arloko epaitegiak eskatuta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak irizpen bat eman zuen langile batek sexu-diskriminazioagatik aurkeztutako demanda bati buruz. Irizpenak hauxe ondorioztatu zuen: langilea berdintasun-diagnostikoa eta -plana osatzeko lanetan parte hartzeagatik kaleratzea errepresalia izango litzateke, eta, beraz, sexuan oinarritutako diskriminazioa.





10. PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN



Profesionalen prestakuntza oinarrizko estrategia da generoarekin sentikorrek diren politikak garatzeko. Hori dela eta, prestakuntza lan-eremu garrantzitsua da Emakunderentzat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen erregulazioak eta planak jasotzen dutenez.

2023an, aurrera egin da Emakundek eskaintzen duen prestakuntzan.

10.1. Emakunderen online prestakuntza-ataria

lazko ekitaldian, 2021ean hasitako alde aurreko lana garatzen jarraitu da, online prestakuntza-ataria bat abian jartzeko; hala, gaiak, irakasleak, edukiak eta hura abian jartzeko premia teknologikoak identifikatu dira. Alde aurreko lan horren ondorioz, ataria eta prestakuntza-edukiak diseinatzeko proposamen bat aurreratu da, eta ikastaro-eskaintza zabal bat prestatu da, kontrastatzeko eta baliozkotzeko, guztia ere 2024an abian jar dadin.

10.2. «Berdintasuna, Zientzia eta Teknologia, paradigma aldaketa baten alde» nazioarteko kongresua

Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzarik gabeko Herri Itunaren (Berdinaldia) barruan antolatua da kongresua. 2022ko ekainean aurkeztu zen, eta 2023an bi konpromisotan jarri zuen arreta: emakumeak eta neskatoak ahalduntzea, eta eraldaketa digitala. Biltzarrak nazioarteko adituak elkartu zituen, helburu gisa harturik genero-desberdintasunak eta -arrakalak aztertzea eta ikustea zer eraldaketa behar diren zientziaren eta teknologiaren esparruan emakumeen eta gizonen berdintasuna sistematikoki txertatzeko. Zientziaren eta teknologiaren eremuan dagoen genero-arrakala ez da mugatzen emakumeek eremu horretan duten presentzia

eta ikusgarritasun txikiagora bakarrik, baita eremu horren ikuskera androzentrikora ere, eta, beraz, paradigma aldatzea eskatzen du, berdintasuna modu sistematikoan txerta dadin lortzeko.

CFM, CIC nanoGUNE, CIC biomaGUNE, POLYMAT, Achucarro, Elhuyar, UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitatea eta Ikerbasque ikerketazentroetako ordezkariak osatutako batzorde zientifiko batek diseinatu zuen programa, Emakunderekin eskuz esku lan eginez.

Alabaina, kongresu horiez da lanaren amaiera, baizik eta indarra eta ideiak hartzeko eta herritarrekin eta inplikaturako eragile guztiekin indarrak batzen jarraitzeko unea, zientzian eta teknologian berdintasunaren lorpena bizkortze aldera. Eta hori guztia lidergo partekatua, partehartzearen, espirtu integratzailearen eta komunitate eraldatzailearen bidez, horiek baitira Berdintasunaren aldeko Herri Itunaren zutabeak.



«Berdintasuna, zientzia eta teknologia, paradigma-aldaketa baten alde» Nazioarteko Kongresua.



10.3. UPV/EHUko udako ikastaroa

Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen esparruan, Emakundek Donostiako Miramar Jauregian, ekainaren 29an eta 30ean, «Emakumeen lidergo eraldatzaileak berdintasunezko gizarte bat lortzeko» ikastaroa antolatu zuen.

Ikastaroaren helburuak hauek izan ziren:

- **Botere-egitura patriarkalak eta** emakumeen lidergo feministarentzako **oztopoak ezagutzea eta horiei buruz gogoeta egitea.**
- Emakumeen ahalduntzea eta gizarte-eremu guztietan parte hartzea errazten duten **estrategia, neurri eta ekintza positiboak identifikatzea**, emakumeen lidergorako beharrezkoak diren baldintzak sortzeko eta erabakiak baldintza berdinetan hartzen parte har dezaten.
- Emakumeen lidergoari eta lidergo eraldatzaile, feminista, eraginkor eta belaunaldiartekoari buruz ikasitako **esperientziak eta lezioak ezagutzea eta partekatzea** gizarte-antolamenduko hainbat arlotan.



EHUko udako ikastaroa.

10 hitzaldi, eta bi mahai-inguru egin ziren:

	HIZLARIAK	IZENBURUA
HITZALDIAK	Jose Jabier Zurikarai	Emakumeak eta lidergoa Euskadin, neurtu dezagun egoera.
	Maria Teresa Busto Busto	Emakume liderren ahotsa: emakumeen sarea, talentua, lidergoa.
	Itziar Carrocera Fernandez	Esparru politikoko lidergoak: Virginia Wolf Basqueskola proiektua.
	Nerea Ibañez Garcia	Lidergoak ekonomiaren arloan EnpresariAK, Euskadiko Emakume Enpresari, Zuzendari eta Profesionalen Federazioa.
	Elena Ieñena Mendizabal	Esparru akademikoko lidergoak: AKADEME - EHU Emakume akademikoen lidergorako programa.
	Asunción Bernardez Rodal	Erresistentzia feministetatik gizonetara.
	Ana Isabel Santos Castro	Ahalduntze feminista lidergorako.
	Iratxe Uriarte Eiguren	Gazteen parte-hartzean lidergoetan eta irudikapenetan matxismoari aurre eginez.
	Marina Cortijo Gimbel	Ahalduntzea eta lidergoa.
	Alazne Irigoyen Dominguez	Lidergo gazte eta feministak mundua eraldatzeko - Europako esperientzia bat.
MAHAI-INGURUAK	Nerea Ibañez Garcia Elena Ieñena Itziar Carrocera	Emakumeen lidergoa sustatzeko proiektuak
	Marina Cortijo Iratxe Uriarte Alazne Irigoyen	Teoriatik praktikara: emakume gazteen lidergorako estrategiak.



10.4. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak

Udako ikastaroen, Gizonduz ekimenaren eta Jabetuz programaren bidez egindako prestakuntza-eskaintzaz gain, Emakundek, 2023an, prestakuntza- edo sentsibilizazio-jardunaldi hauek antolatu ditu aurreko ataletan xehetasun handiagoz deskribatu diren hainbat entitate eta talderentzat:

- Nahiko programaren esparruan, 3 hitzaldi online.
- Gizonduz ekimenaren esparruan, jardunaldi bat.
- Politika publikoen esparruan, jardunaldi bat.
- Enpresekiko lan-eremuan, 2 prestakuntza-jarduera.
- BAI SAREA Berdintasunerako lankidetzako-erakundeen sarearen barruan, 7 prestakuntza-saio.
- Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eremuan, 4 prestakuntza.

10.5. Lankidetzako Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin

Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen zerbitzura dauden langileen berdintasunari buruzko aholkularitza ematen eta zeharkako prestakuntzaren garapenean laguntzen jarraitu da: prestakuntza-eskaintzaren diseinua, prestakuntza-premia berrien identifikazioa eta ikastaro berrien proposamenak.

Gainera, prestakuntza-ikastaro hauek ematen lagundu da:

- «Proiektuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroa».
- «Hirigintzari buruzko jardunaldia».

10.6. Lankidetzako ildoak unibertsitateekin

Unibertsitateekin lankidetzan aritzea funtsezkoa da unibertsitate-sisteman berdintasuna sustatzeko, baita unibertsitateko ikasketetan eta ikerketan genero-ikuspegia txertatzeko ere.

Ildo horretan, Emakunde lankidetzan aritzen da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Berdintasun Zuzendaritzarekin eta EAEko unibertsitateetako beste berdintasun-zerbitzu batzuekin, interes komuneko proiektu eta ekimenetan. Helburu nagusia da unibertsitate-komunitatea berdintasun-gaietan trebatzea, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen dieten eta esku-hartze sozialean parte hartzen duten berdintasun-agenteen eta bestelako profesionalen prestakuntza espezializatua ziurtatzeko.

2023an honako lankidetzako hauei eutsi zaie:

JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
Berdintasunari buruzko online prestakuntza-ikastaroak	EHUrekin 2018an sinatutako lankidetzako hitzarmenaren esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 2 ikastaro online egin dira prestakuntza-ekintzak eta berdintasun-politikak elkarrekin sustatzeko (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz), eta beste bi ikastaro, gizonari, berdintasunari eta maskulinitateei buruz (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz). 144 pertsonak gairitu dituzte ikastaro horiek (120 emakume eta 25 gizon).
Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko masterra	- UPV/EHUk antolatutako Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna masterrarekin elkarlanean aritzea, profesionalak berdintasunerako eragile gisa lan egin dezaten gaitzeko. - Hiru irakasgai eta aurrez aurreko saio bat eman dira, eta praktikak Emakunden egitea erraztu da.
Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeari buruzko masterra	- Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-master ofizialaren garapenean ere lankidetzan aritu da, ikasleentzako 8 bekaren bidez (guztiak emakumeak). - Prestakuntza-saio bat egin da.



JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
Justizia sozialaren aldeko klinika juridikoa	UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko gizarte-justiziaren aldeko Klinika Juridikoarekin lankidetzan aritu da, benetako kasuak, ezagutzak eta esperientziak emanez.
Emakume teknologoaren Ada Byron saria	Deialdia antolatzeko laguntza ekonomikoa eman eta Ada Byron Sariaren epaimahaian parte-hartu dugu, teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortu eta ikusgarri egiteko. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta emakumeek ekarpen handiak egiten dituzten hainbat eremutan.

Aldian-aldian, babes ekonomikoa eskaini zaio Zuzenbide Fakultatearen Bizkaiko Sekzioak antolaturiko «Justizia ildo feministan IV. *Sólo Sí es Sí Legea*» ikastaroari, eta babesa eman zaio, orobat, EHUko Parte Hartuz ikerketa-talde finkatuak aurkeztutako «Unibertsitateko ikasleen agentzia aktibatuz genero-desberdintasunak kudeatzeko Gipuzkoan» proiektuari.





11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK



Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak eta horien eragina aztertzea. Izan ere, horrela bakarrik diseinatu eta gauzatu ahal izango dira berdintasunik ezak zuzentzeko politika egokiak, baita berdintasunik ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Horretarako, Emakundek txostenak, gidak eta bestelako materialak egiten ditu bere argitalpen-lerroaren bidez, eta dokumentazio-zentro bat ere badu. Emakundek, halaber, genero-ikuspegidun ikerketa sustatzen du eta hura zabaltzen laguntzen du, ikerketa-beken eta argitalpen-lehiaketaren bidez.

11.1. Txostenak eta azterlanak

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak

Urteko Zifrak txostenari esker, EAEko eremu sozial, ekonomiko eta politikoa emakumeek eta gizonen bizi duten errealitatearen ikuspegi globala lortzen da, bai unean unekoa, bai eboluziozkoa. Haren helburua da administrazio publikoen eskura jartzea genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak, eta horiek ezabatzea bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sensibilizatzea du helburu.

2023ko Zifrak izeneko txostenak eskuragarri dagoen informazio estatistiko ofizial eguneratuena bildu eta aztertu du, batez ere EUSTATEk eta beste estatistika-institutu batzuek (hala nola Espainiako Estatistika Institutuak eta Eurostatek) arlo hauetarako sortutakoa:

1. Análisi demografikoa
2. Hezkuntza
3. Lana
4. Baliabide ekonomikoak eta sozialak
5. Osasuna
6. Partaidetza
7. Emakumeen kontrako indarkeria

11.2. Ikerlanetarako bekak

Genero-ikuspegia ikerketa-jardueran txertatzen eta sektore guztietako profesionalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestatzen laguntzeko, Emakundek prestakuntza-beken 3 deialdi egiten ditu urtero 2010etik, berdintasunaren arloko ikerketa-lanak egiteko.

